

V. Mapa Soziolinguistikoa

2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



2011

V. Mapa

Soziolinguistikoa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>.

Argitaraldia: 1.a, 2014ko maiatza

Ale-kopurua: 2.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak. S.L.

ISBN: 978-84-457-3346-2

Lege Gordailua: SS xxx-2014

AURKIBIDEA

Bizi-indarra jomuga.

Cristina Uriarte Toledo,

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua

7

Euskararen hazkundera, paradoxen mapa.

Patxi Bazterrika Galparsoro,

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

9

V. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA, 2011

Fitxa teknikoa eta metodologia

13

1. Biztanleria

15

1.1. Euskal Autonomia Erkidegoaren biztanleriaren bilakaera eta egitura

15

1.2. Atzerriko immigrazioaren fenomenoak

19

1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak

23

2. Hizkuntza-gaitasuna

29

2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan

29

2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

31

2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera

33

2.4. Hizkuntza-gaitasuna guneko soziolinguistikoen arabera

36

2.5. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

39

2.6. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen eta adinaren arabera	43
2.7. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren eta adinaren arabera	52
3. Lehen hizkuntza	59
3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	59
3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	65
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	71
3.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera	76
4. Euskararen erabilera etxean	79
4.1. Euskararen erabilera etxean Euskal Autonomia Erkidegoan	79
4.2. Euskararen erabilera etxean lurraldearen eta hiriburuaren arabera	80
4.3. Euskararen erabilera etxean eskualdearen arabera	84
4.4. Euskararen erabilera etxean gune soziolinguistikoaren arabera	87
4.5. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera	89
4.6. Euskararen erabilera etxean euskaldunen artean	95
5. Laburbilduz	99
6. Taulen aurkibidea	101
7. Irudien aurkibidea	103



Cristina URIARTE

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta
Kulturako sailburua

BIZI-INDARRA JOMUGA

Euskarak azken 30 urteotan ezagutu duen hazkundearen irudia, bai hiztunen kopuruari dagokionez, bai erabilerari dagokionez –azken honetan, ezinbestez, erritmo apalagoan bada ere–, etengabe aurrera doan ontzi batena gogorarazten digu. Gero eta euskal hiztun gehiago sartzen dira ontzian, eta sartzen diren hiztun horiek gero eta gazteagoak dira. Euskal hiztunen artean gehienek etxean jaso dute euskara –askok, gaztelaniarekin batera–, baina dagoeneko asko dira, gero eta gehiago, euskara hizkuntza berri gisa jaso dutenak, eskolaren bidez bereziki, baita euskaltegian ere.

Esan dezakegu, beraz, eta gaizki aritzeko batere beldurrik gabe, EAEko kaian euskararen ontzira sartu diren euskal hiztunek –300.000tik gora azken 30 urteotan– progresio sendoa adierazten dutela. Hau da, euskara errotzen ari da euskal herritar asko eta askorengan.

Oker jokatuko genuke, hala ere, datu positibo horietan, besterik gabe, bertan goxo egingo bagenu. Gaizki egingo genuke, baita ere, euskara biziberritzearena bezalako gizarte prozesu konplexu batek etengabe azaleratzen dizkigun korapilo eta paradoxetan behar besteko arretarik jarriko ez bagenu. Izan ere, hizkuntzaren bizi-indarra da euskara biziberritzeko prozesuarekin loturiko kezka nagusien artean oso garbi azaltzen ari zaiguna. Hori baita, azken batean, gainerako hazkunde eta hobekuntza guztien benetako probalekua. Horretan finkatzen baita, benetan, hizkuntza baten biziberritze prozesuaren atzera ezinezko norabidea. Hizkuntza bat indarrez eta segurtasunez etorkizunerantz proiektatuko nahi bada, gizartearen gogo eta helburu partekatuetan oinak tinko bermatu behar ditu.

Berandu baino lehen gizarteratu beharreko gogoeta dugu, beraz, euskararen bizi-indarraren ingurukoa. Eta gogoeta horretarako beharrezkoak ditugun hainbat eta hainbat datu eta jakingarri eskaintzen digu, hain zuzen ere, eskuartean duzun V. Mapa Soziolinguistikoak. Datuok beste hainbat ikerketa-aukera eta eremu iradokitzen digute,

soziolinguistikaren jakintza esparruaren alor ezberdinetan, oso bereziki euskararen erabilerarako urratsaren gakoak hobeto ezagutzeko. Eta areagotu egingo dugu ikerketa alor horietako ahalegina.

Gogora dezagun, amaitzeko, Inkesta Soziolinguistikoa eta Mapa Soziolinguistikoa direla euskararen egoera eta bilakaeraren berri ematen duten eragiketa estatistiko ofizialak. Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko herritarrek osatzen dute Inkestaren unibertsoa. Mapak, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko 5 urte edo gehiagoko biztanleria aztertzen du. Bi ikerketen arteko beste desberdintasun bat, aztergaiekin lotutakoa da: Inkestak hizkuntza-gaitasuna, transmisioa, erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko herritarren jarrera ditu aztergai; esku artean duzun Mapak, berriz, hizkuntza-gaitasuna aztertzen du, eta, horrez gain, biztanleen lehen hizkuntza eta euskararen erabilera etxean.

Bi ikerketek, Inkestak eta Mapak, 20 urteko ikuspegia eskaintzen digute, eta horrelako denbora tarte batek sendotasuna ematen dio hizkuntza baten bilakaeraren berri eman nahi duen azterketa bati, serie esanguratsuak osatzeko aukera eskaintzen baitu.

Eta hori da, azken finean, zure esku jartzen duguna, V. Mapa Soziolinguistikoa hau argitaratzean: EAEko euskararen bilakaera sozialaren berri ematen digun hainbat datu esanguratsuren bilduma.



Patxi BAZTARRIKA
Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako
sailburuordea

EUSKARAREN HAZKUNDEA, PARADOXEN MAPA

Euskararen egoera eta bilakaeraren berri izan nahi duen ororen esku jartzen dugun argitalpen honek, hain zuzen ere V. Mapa Soziolinguistikoa biltzen duenak, EAEko 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan 5 urte edo gehiago duten herritarrei buruz EUSTATEk jasotako datuetatik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ustiapena jasotzen du.

Euskararen etorkizuna inoiz baino gehiago eta nabarmenago dago gure esku. Hauxe da V. Mapa Soziolinguistikoa agerian jartzen dizkigun ondorio guztien artean ondorio nagusia. Gertakari soziala eta indibiduala da aldi berean hizkuntza erabileraren gertakaria. Faktore objektiboak eta subjektiboak, estrukturalak eta norbanakoaren baitakoak: askotarikoak dira hizkuntza erabileraren jira-bueltan dabiltzanak. Baina gertakari horren motor nagusi eta garrantzikoena herritarrak gara, gu geu.

Datuek argi uzten digutenez, hogeita hamar urteotan EAEn sustatu den euskara biziberritzeko prozesua hazkunde jarraitu baten kronika da. Baieztapen horren froga da, adibidez, gaur egun, herritarren % 36,4k badakiela ongi euskaraz, eta duela 30 urte % 22k bakarrik zekien. Hau da, euskaldunen ehunekoak 14,5 puntuko hazkundera izan du 30 urteotan. Hazkundera are azpimarragarriagoa da urte-tarte berean biztanleria oso gutxi hazi delako: 1981. urtean baino 38.000 biztanle gehiago bakarrik daude gaur egun EAEn, baina 318.000 euskaldun gehiago.

Gainera, 25 urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, hazkundera ikaragarria da: gaur egun, gazte horien % 73 da euskalduna, eta duela 30 urte ez zen % 20ra iristen. 15 urtetik beherakoetan, berriz, % 81 da euskalduna.

Bestalde, gaur egungo euskaldunen perfila ez da duela 30 urtekoa; gero eta ezberdinagoa da, eta honek ere badu zuzeneko eragina V. Mapa Soziolinguistikoa eskaintzen dizkigun datuetan. Adibidez, 30 urtez azpiko euskaldunen gehiengo ahamarretik sei- euskaldun berria da, eta gaur egungo euskaldun berrien ia erdia

Euskadiko 6 udalerrri handienetan bizi da (Bilbon, Gasteizen, Donostian, Getxon, Irunen eta Barakaldon), hots, euskaldunen kopurua % 50era ere iristen ez den tokietan (Barakaldon % 20ra ere ez da iristen); eta, hau dela eta, euskaraz mintzatzeko aukerak urriagoak dira. Hau guztia ez da sekula euskararen historian gertatu.

Eta honek guztiak, nola ez, badu euskararen erabileran zuzeneko eragina. Izan ere, bi faktore nagusitzen dira elebidun batek hizkuntza bat edo beste bat aukeratzekoan, norberaren hizkuntza ohitura errotuekin batera, noski: alde batetik, euskara erabiltzeko erraztasuna erdararekin konparatuz eta, bestetik, inguruan dauden euskaldunen kopurua.

Noski, faktore horiek etxeko erabileran ere nabaritzen dira, beste inon baino gehiago gainera: puntu bat jaitsi da hogeitau urteotan. Nola da posible etxeko erabilerak beheranzko kurba bat marraztea, erabilera orokorra –batez ere esparru formaletan– 4,5 puntu igo baldin bada 1991-2011 tartean? Etxean beti edo ia beti erabiltzen da etxeko guztiek ezagutzen duten hizkuntza. Gurasoetako batek euskaraz ez badaki eta seme-alabek bai, seguru aski, beren artean erabiliko duten hizkuntza gaztelania izango da, eta ez euskara. Gaztelaniaz euskaraz baino hobeki konpontzen diren euskaldun berrietako askok, gehienek, oso neurri handian gaztelania erabiltzera jotzen dute maiz, bereziki esparru ez formaletako hizkuntza jardueran. Eta hau, batez ere, eremu ez formalen artean nagusi den eremuan gertatzen da. Hots, etxeko esparruan. Gainera, gero eta gehiago dira umeei bai baina gurasoek euskaraz ez dakiten familiak, edo bikote mistoak, adibidez. Familiaren tipologia aldatu egin da, beraz.

Honi guztiari gehitzen badiogu euskaldun hauen artean gero eta gehiago (gazteen artean dagoeneko gehiengo) euskaldun berriak direla (gaztelania euskara baino gehiago menderatzen duten euskaldunak, kasu askotan) eta gaztelaniaz jarduteko ohitura dutela, erraz ohartuko gara hizkuntzaren erabileran zuzeneko eragina gertatuko dela. Lehen hizkuntzaren lotura afektibo eta emozionala bigarrenaren bikoiz baino handiagoa izan ohi da, eta horrek ere erabileran duen eragina ez da gutxiestekoa.

Paradoxikoa da: ikaragarri hazi da gutxienez kideren bat euskalduna duten familien kopurua, euskararen hazkundearen mesedean; baina, aldi berean, euskaldunen gero eta proportzio altuagoa da familia eta lagunarte mistoetan bizi dena, euskaldunen kontzentrazioaren kaltean.

Batez ere esparru ez-formaletako erabilera, etxeko eta harreman pertsonaletako erabilera ezin da arautu, are gutxiago inposatu, baina bai elikatu eta sustatu. Euskararen bizi-indarra daukagu jokoan. Horra hor gure gaurko eta etorkizuneko erronka nagusia, V. Mapa honen argitan aski nabarmen ageri dena. Izan ere, euskara gero eta gehiagoren bigarren hizkuntza izateko bidean –hazkunde bidean, alegia– aurrera goazelarik, zorionez joan ere, ez dakigula gero eta gutxiagoren lehen hizkuntza bihurtu. Etxeko sukalde eta egongelan nahiz Etxepareren plazan ohikotasunez erabilia izatea du erronka euskarak, hori dugu erronka euskaldunok. Halakoa ez dena, bigarren mailan irauten duen hizkuntza bailitzateke. Euskal gizarteak badu indarririk franko erronka horri eraginkortasunez aurre egiteko, eta Mapa hau bada bide horretarako argi emaila.

2011
V. Mapa
Soziolinguistikoa



FITXA TEKNIKO ETA METODOLOGIA

Izena: V. Mapa Soziolinguistikoa 2011 (Estatistika ofiziala 020702 kodea)

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Unibertsoa: EAEko 5 urte edo gehiagoko biztanleak

Datuen iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua 2011

- Erakunde arduraduna: EUSTAT
- Eragiketa-mota: Zentsua
- Metodologia: mistoa, hau da, honako iturri hauek konbinatuz osatu da Zentsua:
 - EUSTATEko Biztanleen Erregistroa
 - Administrazio-jatorriko informazio estatistikoa
 - INEren Biztanleriaren Zentsua (inkesta)

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua egiteko erabili den metodologia 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika osatzeko erabili zen lehen aldiz. Aldaketa metodologiko handia izan da. Europako hainbat estatistika-institututan (Suediakoan, Finlandiakoan edo Herbehereetakoan, esaterako) erabiltzen den metodologia da, eta datuen ustiaketa aitzindaria erabiltzen du, jatorri administratiboko fitxategietatik abiatuta. Euskarari buruzko datuak osatzeko erabili diren administrazio-jatorriko iturriak honakoak izan dira:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: Selektibitateari buruzko datuak, LOGSE tituluen erregistroak, hizkuntza-ikasketen tituluen erregistroa eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleen datuak, euskara modalitateari dagokionez.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP): funtzionarioen euskara-ikasketak (Eusko Jaurlaritzakoak eta haren erakunde autonomia-dunetakoak, foru-aldundietakoak, toki-erakundeetakoak eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak).
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea (HABE): euskaltegi-sare osoari buruzko ikasleen datuak).

1. BIZTANLERIA

1.1. Euskal Autonomia Erkidegoaren biztanleriaren bilakaera eta egitura

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2.179.815 biztanle ditu. 2001eko populazioarekin konparatuz, biztanleriak %4,7 egin du gora (ia 100.000 pertsona). Emaidza demografiko positiboa da, bai EAE osoan, eta baita lurralde bakoitzean ere. Arabak izan du hazkunderik handiena, 2001 eta 2011 bitartean 12,2 puntuko igoera izan baitu. Bizkaiak, aldiz, izan du hazkunderik txikiena (%2,7) eta Gipuzkoak EAEn batez besteko igoera izan du (%4,7).

Biztanleriak azken hamarkadan izan duen hazkunde txiki horrek inflexio-puntua suposatu du populazioaren bilakaerari dagokionez. 1981etik 2001era arte biztanleriak behera egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban, ordea, biztanleriak gora egin du hamarkada guztietan, baina hazkunderik handiena azken hamarkadakoa izan da.

2001etik 2011ra biztanleria hazi egin den arren, ez da eten zahartze-prozesua, apur bat moteldu bada ere.

1981-2011 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak ia 11 puntuko igoera izan du. 1981ean EAEn %9,2 ziren 65 urte baino gehiagokoak, 2011n, aldiz, %19,8 dira. Europako ehunekorik altuenetakoa da. Alemaniak eta Italiak baino ez dute gainditzen ehuneko hori.

Azken 30 urteak kontuan hartuz, 2001etik hona lehen aldiz, biztanleriak gora egin du EAEn hiru lurraldeetan. Azken hamarkadan etorritako atzerritarrei esker batez ere, errekupeazio demografiko txiki bat izan da, nahiz eta biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraitzen duen.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2011

	1981	1991	2001	2011
Araba	257.850	272.447	286.387	321.254
Bizkaia	1.189.278	1.155.106	1.122.637	1.153.351
Gipuzkoa	694.681	676.488	673.563	705.210
EAE	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Era berean, 20 urtetik beherakoen ehunekoa erdira jaitsi da. Horrela, 20 urte baino gutxiago zutenak 1981ean biztanleriaren % 34,2 ziren; 2011n, aldiz, % 17,6 dira. Gaur egun, 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira EAEn (% 19,8 versus % 17,6).

Lau udalerritan 65 urte edo gehiagokoak % 30 baino gehiago dira. Honako hauek dira: Lagran, Aranako harana, Elantxobe eta Añana. Beste hiru udalerritan, aldiz, % 10 baino gutxiago dira: Burgu, Irura eta Dulantzi.

Populazioaren piramidearen egitura antzekoa da EAEn eta hiru lurraldeetan, nahiz eta Araban nagusien adin-taldeetan ehunekoa Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa izan eta gazteena zertxobait handiagoa.


Bestalde, aipagarria da azken urte hauetan 85 urtetik gorakoek izan duten hazkundea. Izan ere, 30 urtean 85 urtetik gorakoen proportzioa bostetik biderkatu da, eta 1981eko % 0,5 izatetik biztanleriaren % 2,8 izatera iritsi da 2011n.

2. taula. Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2011 (%)

Adina	1981	1991	2001	2011
≥ 65	9,2	12,6	17,0	19,8
20-64	56,6	61,9	65,0	62,6
0-19	34,2	25,5	18,1	17,6
Guztira	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

1. irudia. Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

EAEko biztanleriaren %80 hiriguneetan bizi da, 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren batean bizi baita. Halaber, populazioaren %35,4 hiru hiriburuetakoko batean bizi da.

Arabako populazioak kontzentrazio eta polarizazio tasa handia du. Izan ere, bertako biztanleriaren ia hiru laurdena Gasteizen bizi da. Gainontzeko 50 udalerrietatik Laudio, Amurrio eta Agurain dira 5.000 biztanletik gora dituzten bakarrak (lehenengo biak 10.000tik gora dituzte). Era berean, arabarren ia %15 udalerrri txikietan bizi da.

Bizkaitarrak ere hiriburuaren inguruan kontzentratuta bizi dira, baina polarizazio-tasa kasu honetan ez da Araban bezain handia. Bizkaiko biztanleriaren %70ek 20.000 biztanletik gorako 11 udalerrietako bat du bizileku. Udalerrri horiek guztiak Bilbo Handian daude kokatuta, Durango izan ezik. Beste %20 inguru 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriren batean bizi da, eta gainerako %10,1 herri txikiagoetan.

Azkenik, Gipuzkoako biztanleria beste lurraldeetan baino banatuago bizi da. 20.000 biztanletik gora dituzten sei udalerrietakoren batean bizi da gipuzkoarren erdia. 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan, aldiz, %40,7 bizi da, eta geratzen den %9,3 udalerrri txikietan.

3. taula. Biztanleriaren banaketa udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2011 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Txikiak (< 5.000 biztanle)	14,8	10,1	9,3
Ertainak (5.000 - 20.000 biztanle)	10,5	19,9	40,7
Handiak (> 20.000 biztanle)	74,7	70,0	50,0
Guztira	321.254	1.153.351	705.210

Iturria: *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.*

Hiriburuei dagokienez, Gasteiz izan da azken 30 urteetan biztanleriaren hazkunde handiena izan duena (%26,6). Izan ere, 50.000 pertsona baino gehiagoko hazkundera izan du. Donostiako biztanleriak ere gora egin du, baina neurri txikiagoan

(% 7,4): 12.560 pertsonako saldo positiboa du. Bilbok, aldiz, % 11ko galera izan du, 1981ean baino 43.000 pertsona gutxiago bizi baita bertan 2011n.

4. taula. Hiriburuetako biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2011

	1981	1991	2001	2011
Gasteiz	189.533	206.116	216.852	239.949
Bilbo	393.821	369.839	349.972	350.558
Donostia	169.228	171.439	178.377	181.788

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

1.2. Atzerriko immigrazioaren fenomenoak

EAEko atzerriko immigrazioaren fenomenoak aztertzeko, azken hamarkada aztertuko dugu, hots 2001-2011 artekoa. Izan ere, epe horretan areagotu da, batez ere, atzerritarren kopurua.

2011n biztanleen %6,6 atzerritarra da. 2001ean, aldiz, %1,3 ziren atzerritarrak. Horrek esan nahi du, atzerriko biztanleria duela 10 urte baino bost aldiz handiagoa dela (27.438 versus 145.256).

Lurraldeei dagokienez, Araban atzerriko populazioaren ehunekoak askoz handiagoa da (%9), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (%6,3 eta %6,2, hurrenez hurren).


Eskualdeetako atzerritarren ehunekoak aztertuta, aldea dago batetik bestera. EAEko atzerritarren ehuneko handiena duten eskualdeak Arabako Lautada (%9,8) eta Arabako Errioxa (%9,3) dira. Atzerritar gutxien, berriz, Debagoienean (%4,8) eta Aiaraldean (%5) bizi dira.

Udalerriei dagokienez, aldeak are handiagoak dira. Hiru udalerrik Euskal Autonomia Erkidegoak duen ehunekoaren bikoitza baino gehiago dute, hau da, %13 baino

Atzerriko biztanleria duela 10 urte baino bost aldiz handiagoa da. Atzerriko biztanleria oso gaztea da; %90,3k 50 urte baino gutxiago ditu


gehiago (Samaniego, Izurtza eta Ordizia). Era berean, beste lau udalerritako atzerri-tarren portzentajea ez da %1 izatera iristen (Mutiloa, Orendain, Larraul eta Orexa).

2. irudia. Atzerriko biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2011



Iturria: Ikuspegi.

3. irudia. Atzerriko biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 2001-2011 (%)




Iturria: Ikuspegi.

Atzerriko biztanleriaren piramideari dagokionez, EAEn oro har, sexuaren arabera ez da alde handirik ikusten, nahiz eta gizonezkoak emakumezkoak baino gehixeago izan (%51,4 gizonezkoak eta %48,6 emakumezkoak). Dena den, lurraldeei begiratuz, Bizkaian eta Gipuzkoan gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoak oso antzekoak badira ere, Araban bien arteko aldea handiagoa da, gizonezkoak %55,1 dira eta emakumezkoak %44,9.

Adinaren araberako banaketa egiterakoan, atzerriko biztanleriaren ezaugarriak nagusienetakoak islatzen da piramidean. Ikus daitekeenez, biztanleria oso gaztea da, hamar lagunetik bederatzia 50 urtetik beherakoak baitira.

4. irudia. Atzerriko biztanleriaren piramidea. EAE, 2011 (%)



Iturria: Ikuspegi.

Arestian aipatu den bezala, adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 34 urte bitartekoetan, atzerriko populazioak pisu handia du biztanleria osoarekiko (ia % 15). 65 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko biztanleek ehuneko txikia osatzen dute (% 1 edo gutxiago).


Araban dago atzerriko biztanleriaren ehuneko handiena 20 eta 34 urtekoen artean (%18,1). Bizkaian eta Gipuzkoan atzerriko biztanleriaren ehunekoa apur bat txikiagoa da adin-talde horretan (% 14).

Gaur egun, amerikarrek atzerriko biztanleriaren %43,1 osatzen dute. Kolonbia, Bolivia, Ekuador eta Brasiletik datoz gehienak.

Europatik datoz %27,8. Horietatik gehienak errumaniarrak dira (europarren %40,2). Portugesak ere asko dira, europarren %21,5 osatzen baitute.

Afrikarrei dagokienez, atzerriko populazioaren hirugarren postuan daude (%22,5). Afrikan ia erdia marokoarrak dira (%48,5), eta ondoren aljeriarrak daude (%16,7).

5. irudia. Atzerriko biztanleriaren jatorria lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)




Iturria: *Ikuspegi*.

Lurraldeetan bada alderik atzerritarren jatorriari dagokionean. Araban afrikarrak (% 35,6) eta amerikarrak (% 34,7) dira nagusi. Era berean, Bizkaian eta baita Gipuzkoan ere amerikarrak dira nagusi (% 47,2 eta % 41,9 hurrenez hurren). Gipuzkoan europarrek ere presentzia handia dute, % 35,8ra iristen baitira.

1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak

2011/2012 ikasturtean EAEn 353.157 ikasle daude matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan. Horietatik % 60,8, hau da, 214.755 ikasle, D ereduari daude matrikulatuta. B ereduari, berriz, 74.785 ikasle (% 21,2), eta A eta X ereduari 63.617 (% 18).

6. irudia. Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2011/12 (%)



Iturria: EUSTAT.

Eredu bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua ikasketa mailaren arabera aldatu egiten da. Ikasketa mailetan zenbat eta gorago joan, orduan eta ikasle gutxiago daude D ereduari matrikulatuta.

D ereduari matrikulatutako ikasle gehienak Haur Hezkuntza daude, lautik hiruk ikasten baitu eredu honetan (% 74). B ereduari % 21,7 dago matrikulatua, eta A ereduari, berriz, % 4,3.

Lehen Hezkuntza ere, D ereduari ikasten dutenak dira gehienago: % 65,5. B ereduari ikasleek % 27,1ek ikasten du, eta A ereduari % 7,4k.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, ikasleek % 57,7 D ereduari dago matrikulatua, B ereduari % 27,6 eta A ereduari % 14,6.

Batxilergoan, erdiak baino gehiagok D ereduari ikasten du (% 54), eta A ereduari matrikulatutako ikasleek % 44 dira. B ereduari matrikulatutakoak, aldiz, % 2 dira.

Lanbide Heziketako ikasleek datuak bestelakoak dira. Izan ere, lautik hiruk baino gehiagok A ereduari ikasten du (% 77,8). D ereduari matrikulatutakoak % 20,6 dira, eta B ereduari daudenak % 1,6.

Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, legeak ez du B ereduari aurrekusten, baina hainbat ikastetxetan, A ereduari talde batzuetako ikasleek ikasgaiaren bat euskaraz jasotzen dute, eta horiek dira hemen B ereduari jotzen ditugunak.

5. taula. Ikasleek banaketa hizkuntza-ereduaren eta ikasketen mailaren arabera. EAE, 2011/12


	Guztira	EAE			EAE (%)		
		A + X	B	D	A + X	B	D
Haur Hezkuntza	96.577	4.159	20.957	71.461	4,3	21,7	74,0
Lehen Hezkuntza	120.288	8.930	32.618	78.740	7,4	27,1	65,5
DBH	72.144	10.561	19.944	41.639	14,6	27,6	57,7
Batxilergoa	28.968	12.755	574	15.639	44,0	2,0	54,0
Lanbide Heziketa	34.083	26.523	546	7.014	77,8	1,6	20,6
Hezkuntza Berezia	1.097	689	146	262	62,8	13,3	23,9
Guztira	353.157	63.617	74.785	214.755	18,0	21,2	60,8

Iturria: EUSTAT.

Erkidegoko hiru lurraldeetako datuak konparatuz gero, desberdintasunak antzematen dira batetik bestera.


Gipuzkoak du D ereduan matrikulatutako ikasleen ehunekorik handiena, ikasleen hiru laurdenak baino gehiagok ikasten baitu eredu honetan (%75,8). B ereduan %14,6 dago matrikulatua, eta A ereduan %9,6. D ereduan ikasten ari dira bizkaitarren erdia baino gehiago (%56,1), B ereduan %22,4, eta A ereduan %21,6. Arabarren kasuan, ikasle gehienak D ereduan matrikulatuta badaude ere, ez dira erdira iristen (%42,8). B ereduan ikasten dute ikasleen %32,0, eta A ereduan %25,2k.

7. irudia. Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2011/12 (%)



Iturria: EUSTAT.

Hizkuntza-ereduak martxan jarri zirenetik asko aldatu da egoera. 1983/1984 ikasturtean gehiengoa A ereduan matrikulatzen zen (%77,7); orain %18 besterik ez da. Galera horren kontrakoa gertatu da D ereduan, izugarrizko hazkundera izan baitu. Ikasleen %14,2 ziren 1983an, eta %60,8 dira egun. B ereduko matrikulazio kopuruak ere gora egin du, neurri txikiagoan bada ere. %8,1 izatetik %21,2 izatera pasatu da.

8. irudia. Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2011/12 (%)

Iturria: EUSTAT.

6. taula. Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2011/12

	Guztira	EAE			EAE (%)		
		A + X	B	D	A + X	B	D
1983/84	524.448	407.705	42.401	74.342	77,7	8,1	14,2
1987/88	499.154	343.705	64.821	90.628	68,9	13,0	18,2
1991/92	437.377	261.910	75.269	100.198	59,9	17,2	22,9
1995/96	373.022	190.912	68.465	113.645	51,2	18,4	30,5
1999/00	317.152	121.908	66.550	128.694	38,4	21,0	40,6
2003/04	301.497	87.747	67.967	145.783	29,1	22,5	48,4
2007/08	319.842	66.689	74.077	179.076	20,9	23,2	56,0
2011/12	353.157	63.617	74.785	214.755	18,0	21,2	60,8

Iturria: EUSTAT.

Ikasketa maila guztietan D ereduan matrikulatutako ikasleen kopuruak gora egin du, neurri ezberdinetan bada ere. 1996/97 ikasturtetik hona ereduak maila bakoitzean izandako bilakaerari erreparatuko diogu jarraian.

Haur Hezkuntzan, 96/97 ikasturtean D ereduan matrikulatua zegoen ikasleen gehiengoak (%51). Azken urteetan igoera handia izan du, orain %74 baitira. A ereduak behera egin du (%19,8tik %4,3ra). B ereduak ere zertxobait egin du behera (%28,4tik %21,7ra).


Lehen Hezkuntzan ere D ereduan matrikulatuak gehiago ziren (%38,8) A eredukoak baino (%31,8). Bi datuen arteko aldea asko handitu da azken urteetan (%65,5 D ereduan eta %7,4 A ereduan). B eredua, berriz, zer edo zer jaitsi da (%29,4tik %27,1era).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 1996/97 ikasturtean ikasle gehienak A eredukoak ziren (%43,3), baina zifra hori %14,6ra jaitsi da 2011/12 ikasturtean. D eredua %33,3tik %57,7ra igo da, eta B ereduak ere gora egin du, gutxiago bada ere (%23,3tik %27,6ra).

DBHn bezala, Batxilergoan ere ikasle gehienak A eredukoak ziren 96/97an (%55,1). Orain, berriz, %44 dira. D eredukoak %43,4tik %54ra igo dira, eta B eredukoak %1,5etik %2ra.

Lanbide Heziketan, 1996/97an ikasturtean gehiengoak A ereduan ikasten zuen (%84,7) eta 2011/12 ikasturtean ere gehieneko ereduak bada ere (%74,5), D ereduko matrikulazioa pixkanaka igotzen joan da (%12,3tik %23,6ra).

9. irudia. Hizkuntza-ereduen bilakaera ikasketa mailaren arabera.
EAE, 1996/97-2011/12 (%)



Iturria: EUSTAT.

2. HIZKUNTZA-GAITASUNA


2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.056.136 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, 749.182 pertsona (%36,4) euskaldunak¹ dira. Beste 396.922 pertsona (% 19,3) euskaldun hartzaileak² dira. Azkenik, 910.032 pertsona (% 44,3) erdaldunak³ dira.

Atzera begiraturaz gero, ikusten da euskaldunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken 30 urteotan, 14,5 puntuko hazkundea izan baitu. Euskaldunak %21,9 ziren 1981ean eta %36,4 dira 2011n.


Bost urte edo gehiagoko ia 750.000 pertsona euskaldunak dira EAEn, biztanleriaren %36,4.

10. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

- ¹ Euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko.
- ² Euskaldun hartzailea gai da euskaraz ondo ulertzeko, nahiz eta ondo ez hitz egin. Bestela, ondo ulertzeko gai ez bada, gai da zailtasunez bada ere, hitz egiteko.
- ³ Erdalduna ez da gai ez euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

11. irudia. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Dena dela, azken hamarkadan biztanleriaren joan-etorriek, atzerriko etorkinen hazkunde handiak eta oraingoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa zuten jende nagusiaren heriotzak euskaldunen hazkundera moteldu egin du. Euskaldunen hazkundera 2001etik hona 4,2 puntukoa izan da.

Gaur egun, orain dela 30 urte baino 318.000 pertsona gehiago da gai euskaraz ondo edo nahiko ondo egiteko.

Euskaldun hartzaileek ere gora egin dute; % 12,2 ziren 1981ean, eta % 19,3 dira 2011n.

Erdaldunek, aldiz, behera egin dute nabarmen. % 65,9 ziren 1981ean eta % 44,3, aldiz, 2011n. Azken urteotan 21,6 puntuko beherakada izan dute, duela 30 urte baino 400.000 gutxiago baitira.

7. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)


	1981	1991	2001	2011
Euskaldunak	21,9	26,4	32,2	36,4
Euskaldun hartzaileak	12,2	16,2	18,2	19,3
Erdaldunak	65,9	57,4	49,6	44,3

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

2011ko Zentsuko datuen arabera, 5 urte edo gehiagoko 301.896 arabarretatik 69.196 euskaldunak dira (%22,9). Bizkaian, 1.091.277 pertsonetatik 331.087 euskaldunak dira (%30,3). Gipuzkoak du euskaldunen kopururik eta ehunekorik altuena. Izan ere, 662.963 gipuzkoarretatik, 348.899 euskaldunak dira (%52,6).

12. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

8. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011

	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
Araba	301.896	69.196	58.832	173.868
Bizkaia	1.091.277	331.087	227.103	533.087
Gipuzkoa	662.963	348.899	110.987	203.077
EAE	2.056.136	749.182	396.922	910.032

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.


Bilakaerari dagokionez, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek, baina hazkunderik handiena Arabak izan du. Araban biztanleriaren %4 zen euskalduna duela 30 urte. Hortaz, ia 19 puntuko hazkundera izan du.

Bizkaian % 15,2 ziren euskaldunak 1981ean, eta 15 puntu baino gehiagoko hazkundera izan du.

Azkenik, duela 30 urte ere Gipuzkoan zegoen euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz (%40), eta igoera txikiagoa izan arren, 12 puntutik gorako hazkundera izan du.

Dena dela, azken hamarkadan Gipuzkoako euskaldunen ehunekoak 1,1 puntuko igoera baino ez du izan. Igoera horren apaltzea bi arrazoiengatik gertatu da. Batetik, duela 10 urte zaharrenen artean euskaldunen ehunekoa altuagoa zelako oraingoena baino. Horrela, Gipuzkoan, 80 urtetik gorakoen erdia baino gehiago euskaldunak ziren 2001ean, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehunekoak ere behera egiten zuen nabarmen. Bestetik, gainerako lurraldeetan bezala, azken urteotako biztanleriaren mugimenduak, hau da, gipuzkoar euskaldunak beste lurralde batzuetara joateak eta, alderantziz, kanpoko jende erdalduna bertara etortzeak, batez ere atzerritarrak, eragina izan du euskaldunen ehunekoan.

13. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2011 (%)




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera

Eskualdeetan argiago ikusten da azken hamarkadan atzerriko jendearen etorrerak izan duen eragina zenbait eskualderen hizkuntza-gaitasunean; batez ere eskualde euskaldunetan. Horrezaz gain, zenbait eskualdek biztanleria galdu dute, eta horrek biztanleriaren zahartzea dakar. Umeak eta gazteak, hau da, euskaldunen ehunekorik altuena duten adin-taldeak gutxitu egin dira. Horren ondorioz, eskualde horietako euskaldunen ehunekoak behera egin du, edo ez da hainbeste igo. Kontrakarik ere gertatu da eskualderik erdaldunenetan, eta bertara bizitzera joan den jendeak euskaldunen ehunekoa handitu egin du.

Hori guztia kontuan hartuta, hogeitaz eskualdeak bi multzotan bana daitezke azken hamarkadan hizkuntza-gaitasunean izan duten bilakaeraren arabera.

14. irudia. Euskaldunak eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Lehen multzoa euskaldunen ehunekoa duela 10 urte baino handiagoa duten hamabi eskualdeek osatzen dute. Arabako sei eskualdeak, Bizkaiko Bilbo Handia, Durangaldea, Enkarterri eta Plentzia-Mungia, eta Gipuzkoako Donostialdea eta Bidasoa Beherea dira. Eskualde hauetan guztietan euskaldunen ehunekoa %20-40 ingurukoa da, eta oso ezaugarri desberdineko eskualdeak dira. Eskualde batzuek biztanleak galdu dituzte, besteak beste, biztanle gutxien eta gehien dituzten eskualdeak (Arabako Mendialdea eta Bilbo Handia). Beste eskualde batzuetan, aldiz, biztanleriak hazkunde handia izan du (Plentzia-Mungia, Gorbeialdea, Añana eta Arabako Lautada). Euskaldunen kopuruari erreparatzen badiogu, gainera, euskaldun gehien dituzten hiru lurraldeetako eskualdeak multzo honetan sartzen dira, hala nola, Bilbo Handia (191.457 euskaldun), Donostialdea (132.684 euskaldun) eta Arabako Lautada (52.926 euskaldun). Hiru hiriburuak barne hartzen dituzten eskualdeak dira.

Bigarren multzoa euskaldunen ehunekoa duela 10 urte baino txikiagoa duten gainerako zortzi eskualdeek osatzen dute. Eskualde hauek guztiak euskaldunen ehunekorik handiena dutenak dira. Honako hauek dira euskaldunen ehunekorik handiena duen eskualdetik hasita: Lea-Artibai (%81,2), Urola Kosta (%76), Busturialdea (%72), Tolosaldea (%70,6), Debagoiena (%62,8), Goierri (%59,4),

Debarrena (%58,1) eta Arratia-Nerbioi (%54,1). Tamaina ertaineko eskualdeak dira, 20.000-70.000 biztanle artean dituztenak.

Zortzi eskualde hauetako biztanleriaren bilakaerari dagokionez, eskualde batzuetan biztanleria asko hazi da 30 urte hauetan (Urola Kosta) edo hazi egin da, baina neurri txikiagoan (Arratia-Nerbioi, Tolosaldea eta Busturialdea). Beste batzuetan, aldiz, biztanleria nabarmen murriztu da (Debarrena) edo biztanleriak murrizketa txikiagoa izan du (Debagoiena, Lea-Artibai eta Goierri). Horrek, lehenago aipatu den bezala, eragina izan du hizkuntza-gaitasunaren bilakaeran.

9. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 2001-2011 (%)

		Guztira		Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak	
		2001	2011	2001	2011	2001	2011	2001	2011
ARABA	Aiaraldea	31.321	32.634	21,9	27,8	20,3	20,9	57,8	51,4
	Añana	4.522	5.660	7,0	16,2	11,7	18,6	81,4	65,3
	Arabako Errioxa	9.533	10.934	12,9	20,8	10,6	15,2	76,5	63,9
	Arabako Lautada	217.825	241.368	14,9	21,9	20,4	19,6	64,7	58,5
	Gorbeialdea	6.502	8.220	37,5	41,4	15,9	18,4	46,6	40,2
	Mendialdea	3.013	3.080	11,5	20,0	10,2	14,9	78,3	65,1
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	20.246	22.151	56,4	54,1	13,1	16,8	30,6	29,1
	Bilbo Handia	828.162	827.392	16,5	23,1	21,3	22,0	62,2	54,8
	Busturialdea	42.164	43.593	75,4	72,0	11,6	11,9	13,1	16,1
	Durungaldea	86.077	91.956	47,2	48,5	16,7	17,9	36,1	33,6
	Enkarterri	28.514	30.237	12,8	21,5	17,4	21,5	69,8	56,9
	Lea-Artibai	24.973	25.036	87,5	81,2	5,7	7,7	6,8	11,1
	Plentzia-Mungia	42.558	50.912	47,3	48,8	18,2	21,5	34,5	29,7
GIPUZKOA	Bidasoa Beherea	67.815	71.627	38,2	40,3	14,9	19,2	47,0	40,5
	Debarrena	51.923	51.624	60,3	58,1	12,1	15,0	27,7	26,9
	Debagoiena	59.142	58.442	65,7	62,8	10,7	13,9	23,7	23,3
	Donostialdea	295.838	305.728	39,1	43,4	19,2	19,8	41,8	36,8
	Goierri	60.293	62.997	61,8	59,4	10,4	14,1	27,8	26,5
	Tolosaldea	41.900	44.217	72,2	70,6	11,6	12,6	16,2	16,8
	Urola-Kosta	62.637	68.328	80,1	76,0	7,7	9,3	12,2	14,6
EAE	1.984.958	2.056.136	32,2	36,4	18,2	19,3	49,6	44,3	

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau gune soziolinguistiko ezarri zituen biztanleriaren euskaldunen ehunekoaren arabera. Honako hau da banaketa:

- Lehen gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna.
- Bigarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %20-50 bitartean da euskalduna.
- Hirugarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %50-80 bitartean da euskalduna.
- Laugarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.

Lehen gune soziolinguistikoan bost urte edo gehiagoko 178.591 pertsona bizi dira EAEn, biztanleria osoaren %8,7 hain zuzen. Horietatik 31.403 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien %4,2. Araba eta Bizkaiko 22 udalerrri daude gune soziolinguistiko honetan, eta Gipuzkoako bat ere ez. Udalerrri gehienak txikiak dira, landa eta nekazaritza inguruneetakoak, Enkarterri eta Arabako zenbait udalerrri, hain zuzen. Arabako herri gehienek 500 biztanle baino gutxiago dituzte. Oso biztanleria zahartua dute, ume gutxi eta heldu eta nagusi asko. Oion ere lehen gunean dago, 3.000 biztanle baino gehiago izan arren, baina atzerriko etorkinen ehuneko handia duenez (%11,2), eragina du euskaldunen ehunekoan. Era berean, Nerbioi Itsasadarraren Ezkerraldeko Barakaldo, Santurtzi eta Sestao ere gune honetan sartzen dira.


Bigarren gune soziolinguistikoko udalerrietan EAeko biztanleriaren bi heren bizi dira (%66,4), 1.365.969 biztanle. Horietatik 384.243 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien erdia baino gehiago (%51,3). Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 80 udalerrrik osatzen dute bigarren gunea. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak gune soziolinguistiko honetan daude, lehenago aipatu dugun Barakaldo izan ezik.

Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 448.083 pertsona bizi dira, EAeko biztanleria osoaren bostena (%21,8). Horietatik 280.008 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (%37,4). Bizkaiko eta Gipuzkoako 87 udalerrri daude hirugarren gune soziolinguistikoan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak dira, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerrriak dira horietako asko, tamaina ertainekoak eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.


Laugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 63.493 pertsona bizi dira, EAeko biztanleria osoaren %3,1. Horietatik 53.528 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien %7,1. Bizkaiko eta Gipuzkoako 61 udalerrri eta Arabako udalerrri bakarra (Aramaio) daude gune honetan. Udalerrri txikiak dira gehienak, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte, Azpeitia eta Lekeitio izan ezik.

15. irudia. Gune soziolinguistikoaren bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)

1981



2011



- 4.a: euskaldunak \geq % 80
- 3.a: euskaldunak % 50-80
- 2.a: euskaldunak % 20-50
- 1.a: euskaldunak < % 20

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke gero eta udalerrri gutxiago dagoela lehen eta laugarren gunean. Azken urteotan, biztanle gehien dituzten udalerrri handi asko lehen gunetik bigarren gunera pasatu dira (Bilbo, Gasteiz eta Getxo). Halaber, laugarren guneko zenbait udalerrri hirugarren gunera pasatu dira, hala nola, Markina-Xemein.

Bigarren gunea hazi da gehien azken 30 urteotan, azken hamarkadan bereziki. Horren ondorioz, lehen gunearen pisua asko jaitsi da. Duela 30 urte, 82 udalerrri zeuden lehen gunean, orain baino ia lau aldiz gehiago (22 versus 82). Bigarren guneko honetako euskaldunak oso gazteak dira. Horrela, 15 urtetik gorako biztanleria bakarrik kontuan hartuko bagenu, udalerrri horietako asko lehen guneko soziolinguistikora pasatuko liriateke. Horixe gertatuko litzateke Bilborekin eta Gasteizekin. Izan ere, Bilbon % 17,6 dira 15 urtetik gorako euskaldunak eta % 16,6 Gasteizen.

Hirugarren gunea ere hazi egin da euskaldunen zein udalerrrien kopuruari dagokionez. Gune honetan 52 udalerrri zeuden duela 30 urte, orain baino 35 udalerrri gutxiago.

Azkenik, laugarren gunean udalerrrien zein euskaldunen kopurua jaitsi egin da, hirugarren gunera pasatu baitira. Duela 30 urte, 79 udalerrri zeuden laugarren gunean, orain baino 17 gehiago.

10. taula. Biztanleriaren banaketaren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1981-2011

Guneak	Biztanleak (≥ 5 urte)		Euskaldunak (≥ 5 urte)		Udalerrri kopurua	
	1981	2011	1981	2011	1981	2011
1. (<% 20)	1.263.529	178.591	75.278	31.403	82	22
2. (% 20-50)	485.305	1.365.969	146.986	384.243	37	80
3. (% 50-80)	249.083	448.083	156.440	280.008	52	87
4. (>% 80)	78.531	63.493	69.072	53.528	79	62
EAE	2.076.448	2.056.136	447.776	749.182	250	251*

* Ziortza-Bolibar udalerrria ere sartu da, 2004an onartu baitzen udalerrri hau Markina-Xemeinetik desanexionatzea (EHAA 2005/01/27).

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.


2.5. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzerakoan, aipagarria da 5-24 urte bitartekoen artean lautik hiru euskaldunak direla EAEn (%73,2). Era berean, adin horretako euskaldun hartzaileen eta erdaldunen ehunekoa murriztuz doa adinean behera egin ahala.

25-34 urte bitartekoetan euskaldunen ehunekoa ez da erdira iristen, baina %46,5ekoa da 25-29 urte dituztenen artean eta %38,6koa 30-34 urte bitartekoen artean. Euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute adin hauetan, batez ere 30-34 urte bitartekoen artean (%29,2).

Gaur egun, EAEn, orain dela 30 urte ez bezala, umeak eta gazteak dira euskaldunen ehunekorik handiena dutenak (%73,2).

16. irudia. Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

35-55 urte bitartekoen artean erdaldunek dute ehunekorik handiena, baina euskaldunek zein euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute. Joera orokorrari jarraituz, adinean gora egin ahala, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoa murriztuz eta erdaldunen ehunekoa, aldiz, handituz doa.

55 urtetik gorakoen artean, erdaldunak % 60 baino gehiago dira adin-talde guztietan, eta euskaldun hartzaileak gutxituz doaz adinean gora egin ahala. Euskaldunei dagokienez, 80 urtetik gorakoen euskaldunen ehunekoa handixeagoa da (% 25,5 batez beste). Gainerako adin taldeen euskaldunen ehunekoa % 20-23 bitartekoa da. Dena dela, ehunekoetan dauden aldeak ez dira oso handiak, oro har. Alde handiena euskaldun hartzaileen ehunekoetan dago. Zenbat eta nagusiago, orduan eta euskaldun hartzaile gutxiago.


11. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
≥ 85	51.192	26,4	7,1	66,5
80-84	66.961	24,8	7,6	67,6
75-79	91.822	22,9	8,3	68,8
70-74	89.437	21,3	9,6	69,1
65-69	110.791	20,5	12,4	67,1
60-64	132.074	21,1	14,9	64,0
55-59	139.239	21,5	17,1	61,4
50-54	161.779	24,5	19,4	56,0
45-49	172.007	26,9	22,1	51,0
40-44	174.881	28,3	27,0	44,7
35-39	183.321	32,2	31,1	36,8
30-34	173.448	38,6	29,2	32,2
25-29	133.125	46,5	24,2	29,3
20-24	101.267	57,8	19,9	22,3
15-19	86.416	73,3	14,2	12,6
10-14	89.119	84,0	11,3	4,7
5-9	99.257	79,1	15,8	5,2
Guztira	2.056.136	36,4	19,3	44,3

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

1981-2011 aldian hizkuntza-gaitasunaren bilakaera zer-nolakoa den aztertzean, ikusten da 1981ean, hau da, 30 urte lehenago, euskaldunen ehunekorik altuena zutenak 65 urtetik gorakoak zirela (%32,7 batez beste) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsi egiten zela euskaldunen ehunekoa. Azken 30 urte hauetan aldaketa handia gertatu da. Gaur egun, gazteen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz.

17. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

1981ean erdaldunen ehunekorik handiena 25-55 urte-bitarteko helduen artean zegoen (%69tik gora). Gaur egun, aldiz, arestian esan bezala, 55 urtetik gorako adin-taldeetan daude erdaldunen ehunekorik handienak.

Euskaldun hartzaileei dagokienez, 1981ean ehunekorik handienak gazteen artean zeuden (%24,3 euskaldun hartzaileak ziren 10-14 urte bitartekoen artean) eta gutxituz zihoazen adinean aurrera egin ahala. Euskaldunekin bezala, aldaketa gertatu da 30 urte hauetan. Izan ere, gaur egun, euskaldun hartzaileen ehunekorik handienak, 25-50 urte bitartekoen artean daude. Zehazkiago, 2011n 35-39 urte bitartekoek dute euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena, ia herena baitira (%31,1), ia adin horretako euskaldunak beste (%32,2).

12. taula. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2011 (%)

Adin-taldeak	1981	1991	2001	2011
≥85	31,8	31,6	30,1	26,4
80-84	33,6	32,2	30,1	24,8
75-79	33,2	31,9	27,5	22,9
70-74	33,2	30,8	25,6	21,3
65-69	31,9	27,8	23,4	20,5
60-64	30,0	25,1	21,5	21,1
55-59	26,5	22,4	20,8	21,5
50-54	24,2	20,8	21,5	24,5
45-49	21,6	20,2	21,9	26,9
40-44	19,8	20,8	24,5	28,3
35-39	19,0	20,7	26,3	32,2
30-34	19,2	22,6	28,0	38,6
25-29	18,6	24,5	34,4	46,5
20-24	19,1	25,1	44,4	57,8
15-19	18,6	29,8	56,3	73,3
10-14	19,4	37,3	65,5	84,0
5-9	20,1	40,7	65,9	79,1
Guztira	21,9	26,4	32,2	36,4

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Azken hamarkadako biztanleriaren mugimenduak, kanpoko jendea EAera etortzeak, batez ere atzerritarrak, eragina izan du 15-39 urte bitarteko euskaldunen ehunekoan. Izan ere, 2001ean adin-talde horretako atzerritarren ehunekoa %1 eta %2 bitartekoa zen. 2011n, aldiz, %10etik gora dira atzerritarrak adin-talde horietan. Atzerritarren ehunekorik altuena 25-29 urte bitartekoek dute (%16,6).

2.6. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen eta adinaren arabera

EAEko hizkuntza-gaitasunari buruz aipatu dugun joera nahiko antzekoa da hiru lurraldeetan, nahiz eta ehunekoak oso desberdinak izan.

ARABA


13. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
≥85	6.936	6,2	5,5	88,3
80-84	8.307	5,0	5,2	89,8
75-79	11.768	4,7	4,9	90,4
70-74	12.135	4,1	5,9	90,0
65-69	15.656	4,1	8,5	87,4
60-64	18.889	5,0	10,3	84,7
55-59	20.101	6,7	12,6	80,7
50-54	23.045	10,9	15,6	73,5
45-49	25.180	13,8	19,4	66,8
40-44	26.433	14,9	25,6	59,5
35-39	28.189	18,8	31,7	49,5
30-34	27.462	25,8	31,5	42,7
25-29	21.407	33,2	27,5	39,3
20-24	15.521	44,4	24,8	30,8
15-19	12.959	60,9	19,2	20,0
10-14	13.284	74,6	18,6	6,8
5-9	14.624	70,3	23,0	6,7
Guztira	301.896	22,9	19,5	57,6

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Arabar 5-19 urte bitarteko ume eta gazteen bi heren baino gehiago euskaldunak dira gaur egun (%68,7 batez beste), Arabako euskaldunen batez bestekoaren hirukoitza (%22,9). Hortaz, oso gazteak dira arabar euskaldun gehienak.

18. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Adinean gora egin ahala, jaitsiz doa euskaldunen ehunekoa. Horrela, 55 urtetik gora, arabarren %7 baino gutxiago dira euskaldunak. Araban euskaldunen ehunekoen arteko aldeak oso handiak dira, gazteenak eta zaharrenak elkarren artean konparatzerakoan.

Euskaldun hartzaileen ehunekorik txikiena 70 urtetik gorakoan artean dago (%6 baino gutxiago) eta adinean behera egin ahala handituz doa. Euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena 30-39 urte bitartekoek dute (%30etik gora). 30 urtetik behera euskaldun hartzaileak gutxituz doaz.

Erdaldunei dagokienez, 40-55 urte bitartean dituzten arabarren bi heren erdaldunak dira, eta 55 urte baino gehiago dituztenen artean are handiagoa da erdaldunen ehunekoa, %80tik gorakoa.

14. taula. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1981-2011 (%)

Adin-taldeak	1981	1991	2001	2011
≥85	5,3	5,5	6,1	6,2
80-84	5,3	5,3	6,1	5,0
75-79	5,6	5,6	5,2	4,7
70-74	5,8	6,0	4,9	4,1
65-69	5,3	5,0	4,5	4,1
60-64	5,5	4,7	4,2	5,0
55-59	4,8	4,2	4,3	6,7
50-54	4,7	3,8	4,8	10,9
45-49	4,0	3,8	6,6	13,8
40-44	3,4	4,2	9,9	14,9
35-39	3,3	4,9	12,2	18,8
30-34	3,2	7,6	12,6	25,8
25-29	3,2	9,0	18,3	33,2
20-24	3,3	8,5	27,6	44,4
15-19	2,8	13,9	39,9	60,9
10-14	3,8	20	52,6	74,6
5-9	5,3	19,7	50,9	70,3
Guztira	4,0	8,6	16,0	22,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

1981ean bost urtetik gorako arabarren %4 euskalduna zen. 1981eko datuekin alderatuz, 30 urte hauetan arabar asko euskaldundu dira, umeak eta gazteak batez ere. 1981ean ume, gazte, zein helduen artean %5 baino gutxiago ziren euskaldunak ia adin-talde guztietan eta %6ra ere ez ziren iristen euskaldunak 60 urtetik gorakoen artean.

BIZKAIA

15. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
≥85	27.659	19,5	7,1	73,4
80-84	37.502	17,7	7,4	74,9
75-79	51.103	16,3	8,0	75,7
70-74	48.458	14,7	9,3	76,0
65-69	58.746	14,2	12,1	73,7
60-64	69.418	14,7	14,7	70,6
55-59	74.051	15,8	16,7	67,4
50-54	87.532	18,7	19,4	61,9
45-49	92.252	21,2	22,5	56,3
40-44	92.565	22,6	28,5	48,9
35-39	96.085	26,2	34,1	39,6
30-34	91.259	32,8	32,8	34,4
25-29	70.526	40,7	28,3	31,0
20-24	53.661	51,3	24,8	23,9
15-19	44.702	68,1	18,4	13,6
10-14	45.113	81,2	13,5	5,3
5-9	50.645	75,2	19,1	5,8
Guztira	1.091.277	30,3	20,8	48,8


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Bizkaian 5-24 urte bitartekoen artean bi heren baino gehiago euskaldunak dira (%68,3 batez beste). Era berean, 30 eta 34 urtekoen artean ere %30 baino gehiago dira euskaldunak. Araban eta Gipuzkoan bezala, euskaldunen hazkundea oso handia da Bizkaiko gazteen artean. Bestalde, adinean gora egin ahala, euskaldunen ehunekoak behera egiten du. Euskaldun gutxien 65-69 urte bitartean dituzten bizkaitarren artean dago (%14,2). Izan ere, 70 urtetik gorakoen euskaldunen ehunekoak, aurreko urteetan bezala, zertxobait handiagoa izaten jarraitzen du.

Euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena 20 eta 50 urte bitartekoez dute, batez ere, 35-39 urte bitartean dituztenek (%34,1). Euskaldun hartzaileen ehunekorik txikiena, ordea, 70 urtetik gorakoek dute (%10 baino gutxiago).

Erdaldunek nagusi izaten jarraitzen dute 30 urtetik gorako adin-talde guztietan: %70etik gora dira 60 urte baino gehiago dituztenen artean, eta erdia baino gehiago 45 eta 60 urte dituztenen artean. Umeen artean, aldiz, %6 baino gutxiago dira erdaldunak.

19. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Bizkaia, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Adinaren arabera bilakaerari dagokionez, 1981ean euskaldunen ehunekorik handienak 45 urtetik gorako adin-taldeek zituzten, batez ere 65 urtetik gorakoek, eta euskaldunen ehunekoa jaitsi egiten zen adinean behera egin ahala. Gaur egun, ordea, alderantziz gertatzen da. Aldaketa erabatekoa izan da. Horrela, 1981ean 5 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunak % 13 baino gutxiago ziren, eta bi heren baino gehiago dira 30 urte geroago (% 68,3).

16. taula. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Bizkaia, 1981-2011 (%)

Adin-taldeak	1981	1991	2001	2011
≥ 85	25,6	24,5	22,3	19,5
80-84	25,7	24,3	23,1	17,7
75-79	25,2	23,9	20,3	16,3
70-74	24,9	23,4	18,3	14,7
65-69	24,0	20,3	16,6	14,2
60-64	22,6	17,8	14,6	14,7
55-59	19,1	15,7	14,0	15,8
50-54	17,1	14,1	14,5	18,7
45-49	15,2	13,6	15,5	21,2
40-44	13,4	13,9	17,9	22,6
35-39	12,8	14,4	19,6	26,2
30-34	12,7	16,3	21,2	32,8
25-29	12,9	18,0	26,6	40,7
20-24	12,9	18,2	35,2	51,3
15-19	12,1	21,5	47,5	68,1
10-14	12,7	27,6	57,4	81,2
5-9	12,5	30,9	58,6	75,2
Guztira	15,2	19,0	24,8	30,3

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

GIPUZKOA

17. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)


Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
≥ 85	16.597	46,4	7,9	45,7
80-84	21.152	45,1	9,0	45,9
75-79	28.951	41,9	10,3	47,8
70-74	28.844	39,4	11,8	48,8
65-69	36.389	37,8	14,6	47,6
60-64	43.767	38,1	17,4	44,6
55-59	45.087	37,3	19,7	43,0
50-54	51.202	40,7	21,1	38,2
45-49	54.575	42,7	22,7	34,6
40-44	55.883	44,1	25,2	30,7
35-39	59.047	48,3	25,7	26,0
30-34	54.727	54,5	22,1	23,4
25-29	41.192	63,5	15,5	21,0
20-24	32.085	75,2	9,3	15,5
15-19	28.755	87,0	5,3	7,6
10-14	30.722	92,1	5,0	2,9
5-9	33.988	88,7	7,7	3,6
Guztira	662.963	52,6	16,7	30,6

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Gipuzkoan, 35 urte baino gutxiago dituztenen artean bostetik lau euskaldunak dira (%80,2 batez beste). Euskaldunen ehunekorik txikienak 55-74 urte bitarteko gipuzkoarrek dituzte, %40 baino gutxiago. EAEn oro har eta gainerako lurraldeetan gertatzen den bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da euskaldunen ehunkoa, baina 75 urtetik gorakoek ere %40tik gorako portzentajea dute. Bestalde, umeen eta gazteen euskaldunen ehunkoa oso handia da, %90 ingurukoa baita 5 eta 19 urtekoen artean.

Euskaldun hartzailen ehunekoa Arabakoa eta Bizkaikoa baino txikiagoa da adin talde gehienetan, nagusien adin taldeetan izan ezik. Horrela, 35-44 urte bitartekoek dute euskaldun hartzailen ehunekorik handiena (%25), eta umeek, gazteek eta zaharrenek txikiena (% 10 baino gutxiago).

20. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa, 1981-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Erdaldunen ehunekorik handiena 55 urtetik gorakoek dute (% 43-% 49 bitartean). Adin horretatik behera, aldiz, erdaldunen ehunekoak behera egiten du nabarmen. 5 eta 14 urte bitartekoek dute ehunekorik txikiena (% 4 baino gutxiago dira).

Gipuzkoako euskaldunen bilakaera adinaren arabera aztertzean, ikusten da 1981ean euskaldunen ehunekoaren joera oraingoaren kontrakoa zela. Garai hartan, gipuzkoarrak zenbat eta zaharrago orduan eta euskaldunen ehuneko handiagoa zuten, Bizkaian bezala. Horrela, 60 urtetik gorakoek erdia baino gehiago euskaldunak ziren. Adinean jaitsi ahala, ordea, ehunekoa jaitsi egiten zen ia herenera iritsi arte. Esate baterako, 25-29 urtekoen % 34,3 ziren euskaldunak. Dena dela, 24 urtetik behera, euskaldunen ehunekoak apurtxo bat gora egiten zuen, eta 5-9 urte bitartekoek % 38,3 ziren euskaldunak.

18. taula. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa, 1981-2011 (%)


Adin-taldeak	1981	1991	2001	2011
≥85	52,8	53,2	51,8	46,4
80-84	57,4	54,6	50,7	45,1
75-79	55,9	54,3	48,5	41,9
70-74	55,9	51,9	46,4	39,4
65-69	53,9	49,1	42,8	37,8
60-64	50,6	45,8	40,3	38,1
55-59	47,0	41,7	38,9	37,3
50-54	43,9	39,1	39,7	40,7
45-49	39,9	38,0	39,2	42,7
40-44	37,3	38,9	42,2	44,1
35-39	35,5	38,0	44,0	48,3
30-34	36,1	40,0	46,2	54,5
25-29	34,3	41,9	54,0	63,5
20-24	35,6	43,3	67,5	75,2
15-19	35,3	49,8	79,0	87,0
10-14	36,4	61,3	84,8	92,1
5-9	38,3	67,3	83,2	88,7
Guztira	40,0	46,1	51,5	52,6

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

2.7. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren eta adinaren arabera

Hiru hiriburuetakoko joera bat dator lurraldeetan ikusi den joera nagusiarekin.

21. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

GASTEIZ

Gasteizek lurraldearen antzeko egoera du. Izan ere, Arabako biztanleriaren zatirik handiena bizi da bertan (Arabako biztanleria osoaren % 74,8) eta baita euskaldunena ere (Arabako euskaldunen % 70,3). Gasteiztarren % 21,5 dira euskaldunak (48.619 pertsona), % 19,6 euskaldun hartzaileak eta % 58,9 erdaldunak.

Adinari dagokionez, Gasteizko euskaldunak oso gazteak dira. Horrela, 5-19 urte bitarteko gazteen bi heren euskaldunak dira (% 66,1). Era berean, 20-34 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoa nahiko handia da (% 29,5). Adin horretatik aurrera jaisten doa nabarmen. Euskaldun gutxien 55 urtetik gorakoen artean dago (% 4,4 batez beste).

Euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena 30-39 urte bitarteko gasteiztarrek dute (% 30 baino gehiago). Adin-talde horretatik gora, ehunekoa jaitsiz doa. Gauza bera gertatzen da adin-talde horretatik behera ere, ehunekoa jaitsiz doa, baina jaitsiera txikia da.

Hortaz, Araba osoan bezala, zenbat eta zaharragoak diren, orduan eta erdaldunagoak dira gasteiztarrak. Esate baterako, 55 urtetik gorakoen artean 10etik 8 baino gehiago erdaldunak dira.

19. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gasteiz, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
≥85	5.097	5,4	5,5	89,1
80-84	5.981	4,4	5,2	90,4
75-79	8.683	4,0	4,5	91,5
70-74	8.972	3,3	5,8	90,9
65-69	11.954	3,3	8,1	88,6
60-64	14.353	4,3	9,8	85,9
55-59	14.973	6,0	12,1	81,9
50-54	16.899	10,8	14,8	74,5
45-49	18.195	13,6	18,9	67,6
40-44	19.367	14,2	24,6	61,2
35-39	21.090	17,5	31,0	51,5
30-34	21.022	23,3	31,4	45,3
25-29	16.737	29,5	28,3	42,3
20-24	11.940	40,4	26,2	33,3
15-19	9.887	57,4	21,2	21,5
10-14	9.902	72,6	20,8	6,6
5-9	10.694	68,3	25,3	6,4
Guztira	225.746	21,5	19,6	58,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Bilakaerari dagokionez, 1981ean %3,5 ziren euskaldunak Gasteizen (%21,5 dira 2011n), eta adin-talde guztietako ehunekoak antzekoak ziren. Euskaldunen ehunekorik altuena 85 urtetik gorakoek eta 5-9 urte bitartekoek zuten (%5 pasatxo). Gainerako adin-taldeetan euskaldunak ez ziren %5era iristen. Asko aldatu dira euskaldunen ehunekoak 30 urte hauetan, batez ere ume, gazte eta helduen artean.

BILBO

2011ko Zentsuko datuen arabera, Bilbon bost urte edo gehiagoko 73.759 euskaldun bizi dira, eta zenbaki absolutuetan euskaldun gehien duen hiria da. Bilboko biztanleriaren %22,1 da euskalduna. Ehuneko hori Bizkaiko euskaldunen ehunekoaren azpitik dago, 8 puntuko aldearekin. EAEko joera orokorrari jarraiki, Bilboko euskaldunak oso gazteak dira.

20. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bilbo, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
≥ 85	10.111	8,7	7,1	84,2
80-84	13.162	6,4	7,6	86,0
75-79	17.713	5,8	8,5	85,7
70-74	15.882	5,2	10,1	84,7
65-69	18.308	5,4	13,5	81,1
60-64	20.177	6,5	16,2	77,3
55-59	21.837	8,6	17,9	73,5
50-54	26.834	12,0	19,9	68,1
45-49	28.832	15,0	22,8	62,2
40-44	27.732	16,7	28,8	54,5
35-39	27.727	20,0	35,2	44,8
30-34	26.082	24,9	33,7	41,4
25-29	21.358	31,3	29,8	39,0
20-24	16.289	42,6	27,5	29,9
15-19	13.697	60,4	22,7	16,9
10-14	13.428	75,3	18,0	6,7
5-9	14.247	68,8	23,9	7,3
Guztira	333.416	22,1	21,8	56,1

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Horrela, 5-19 urte bitarteko bilbotarren bi heren baino gehiago euskaldunak dira (%68,1). Era berean, 20 eta 34 urteko bitarteko bilbotarren euskaldunen ehunekoak batez bestekoaren gainera dago (%31,5). Bestalde, adinean gora egin ahala, ehunekoak behera egiten du. Euskaldun gutxien 70 eta 74 urte dituzten bilbotarren artean dago (%5,2).

Euskaldun hartzailen ehunekorik handiena 35-39 urte bitartekoek dute, herena baino gehiago baitira (%35,2), eta ehunekorik txikiena 85 urte edo gehiagokoek (%7,1).

Erdaldunak nagusi dira 25 urtetik gorako adin-talde guztietan. Are gehiago, zenbat eta zaharrago, orduan eta erdaldun gehiago. Esate baterako, 65 urtetik gorako bilbotarren artean, 10etik 8 baino gehiago dira erdaldunak.

Azken 30 urte hauetan euskaldunen ehunekoak Bilbon izan duen bilakaerari dagokionez, aipatzekoa da 1981ean %6,4 zirela euskaldunak, eta %22,1 direla 2011n. Euskaldunen ehunekorik handiena nagusienek zuten, batez ere 60 urtetik gorakoek. Esate baterako, 85 urtetik gorakoek %13,8 zen euskalduna, eta euskaldunen ehunekoak jaitsi egiten zen adinarekin batera. Euskaldunen ehunekorik txikiena 44 urtetik beherakoek zuten. Adin horretatik behera %6 baino gutxiago ziren euskaldunak, gaur egun gertatzen denaren kontrako.

DONOSTIA

Bost urte edo gehiagoko 69.057 euskaldun ditu Donostiak. Donostiarren %39,9 euskaldunak dira, eta EAEn euskaldunen ehunekorik handiena duen hiriburua da. Ehuneko hori Gipuzkoako euskaldunen ehunekoaren batez bestekoaren azpitik dago, ia 13 puntuko aldearekin. Era berean, Donostian euskaldunak (%39,9) erdaldunak (%38,9) baino gehiago dira.

30 urtetik beherako donostiarren laurik hiru euskaldunak dira (%73,4). Era berean, nagusiagoen artean ere handia da euskaldunen ehunekoak. Esate baterako, 30-34 urte bitartekoek %41,9 euskalduna da. Dena dela, adinean aurrera egin ahala, euskaldunen ehunekoak jaitsiz doa.

Euskaldun hartzailen ehunekorik handiena 35 eta 39 urte bitartekoek dute (%31,7), eta ehunekorik txikiena 15-19 urte bitartekoek (%7,9). Azpimarratzekoa da, gainerako hiriburuetan ez bezala, euskaldun hartzailen ehunekorik txikiena gazteenen artean dagoela.

Erdaldunak nagusi dira 40 urtetik gorako adin-taldeetan. Zenbat eta zaharrago orduan eta erdaldun gehiago dago. Esate baterako, 75 urtetik gorako donostiarren artean, 10etik 6 baino gehiago erdaldunak dira.

21. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Donostia, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
≥ 85	5.384	27,5	11,9	60,6
80-84	6.131	26,1	13,2	60,7
75-79	7.865	24,2	15,5	60,3
70-74	7.691	23,6	17,2	59,2
65-69	9.841	23,1	19,9	57,1
60-64	11.628	23,4	21,9	54,7
55-59	12.562	24,2	23,7	52,0
50-54	14.018	27,8	24,6	47,6
45-49	14.622	30,1	26,9	43,0
40-44	14.024	31,9	30,7	37,4
35-39	13.921	36,2	31,7	32,2
30-34	12.978	41,9	26,9	31,2
25-29	10.708	52,7	20,5	26,8
20-24	8.562	67,9	13,0	19,1
15-19	7.373	82,7	7,9	9,4
10-14	7.804	88,0	8,6	3,4
5-9	7.828	83,9	12,2	4,0
Guztira	172.940	39,9	21,2	38,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

1981ean euskaldunen ehunekorik handiena 85 urtetik gorakoek zuten (%38,3) eta euskaldunen ehunekoa jaitsi egiten zen adinarekin batera. Dena dela, 5-14 urte bitartekoek ehuneko altuagoa zuten 20-39 urte bitartekoek baino. Hortaz,

umeen artean euskaldunen ehunekoa igotzen hasita zegoen. EAE osoan bezala, Donostiako euskaldunen bilakaera oso handia izan da 30 urte hauetan. %21,4 ziren euskaldunak 1981ean, eta %39,9 dira 2011n. Euskaldunen bilakaerarik handiena gazteenek izan dute. Horrela, 5 eta 14 urte bitartekoen artean bostetik bat zen euskalduna 1981ean (%21,1); %80tik gora, aldiz, 2011n.

3. LEHEN HIZKUNTZA


3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuko datuen arabera, EAEn bost urte edo gehiagoko biztanleen % 18,6k euskara soilik jaso du etxean eta beste % 4,9k euskara eta gaztelania jaso ditu. Era berean, lautik ia hiruk gaztelania soilik jaso du etxean (% 72,6). Azkenik, % 3,8k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du.

EAEko biztanleriaren % 23,5ek euskara jaso du etxean: % 18,6k euskara soilik eta % 4,9k euskara gaztelaniarekin batera.

22. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2011 (%)




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan 383.459 biztanleren lehen hizkuntza euskara soilik da, beste 100.908 pertsonaren lehen hizkuntza ere bada, baina gaztelaniarekin. Jende gehienak, hau da, 1.492.885 biztanlek, gaztelania soilik jaso du etxean, eta beste 78.884k beste hizkuntza bat.

Lehen hizkuntza gaztelania dutenak EAEko hiru lurraldeetan nagusi badira ere, alde handia dago lurralde batetik bestera. Araban % 87,9k jaso du gaztelania soilik etxean, % 79,4k Bizkaian eta % 54,4k Gipuzkoan.

23. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Gipuzkoak du ehunekorik eta zenbaki absoluturik altuena lehen hizkuntza euskara soilik dutenen artean (% 35,2 eta 233.556 pertsona). Bizkaian lehen hizkuntza euskara soilik dutenak % 12,6 dira (138.010 pertsona), eta % 3,9 Araban (11.893 pertsona). Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania, biak dituztenak, % 6,8 dira Gipuzkoan, % 4,2 Bizkaian eta % 3,1 Araban.

Azken hamarkadako atzerritarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean EAEn.


Arabian gehiago dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak euskara soilik jaso dutenak baino (% 5 versus % 3,9). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, txikiagoa da euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa (% 3,7 eta % 3,5 hurrenez hurren).

22. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2011

	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
Araba	301.896	11.893	9.387	265.439	15.177
Bizkaia	1.091.277	138.010	46.345	866.485	40.437
Gipuzkoa	662.963	233.556	45.176	360.961	23.270
EAE	2.056.136	383.459	100.908	1.492.885	78.884

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Euskal Autonomia Erkidegoan azken hogeitun urteotan lehen hizkuntzan izan diren gorabeherak bi puntu ingurukoak dira, oro har. Lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelania soilik dutenen ehunekoa jaitsi egin da (2 puntu), baina beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa igo egin da (2,3 puntuko igoera) eta baita euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa ere (1,5 puntu).

24. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Lurraldeei dagokienez, Araban, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak zertxobait gora egin du, duela hogeiturokoarekin alderatuz (%3,9 versus %3). Bizkaian lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak zertxobait behera egin du (%12,6 versus %14). Gipuzkoan, aldiz, txikiagoa da gaur egun (%35,2 versus %39,1).

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenen ehunekoak gora egin du hiru lurraldeetan, eta gaztelania dutenen ehunekoak, aldiz, behera Araban eta Bizkaian, eta Gipuzkoan ez da ia aldatu.

Era berean, hazi egin da euskara edo gaztelania ez den beste lehen hizkuntza bat dutenen ehunekoa hiru lurraldeetan, batez ere Araban. Ia 4 puntuko hazkundea izan du Araban eta 2 puntukoa Bizkaian eta Gipuzkoan.


23. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)

	Euskara			Euskara eta gaztelania			Gaztelania			Beste bat		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011
Araba	3,0	3,5	3,9	1,5	1,9	3,1	94,5	92,7	87,9	1,1	1,9	5,0
Bizkaia	14,0	13,3	12,6	2,7	3,1	4,2	81,7	81,8	79,4	1,7	1,8	3,7
Gipuzkoa	39,1	37,5	35,2	5,2	5,6	6,8	54,3	55,2	54,4	1,5	1,7	3,5
EAE	20,6	19,8	18,6	3,4	3,7	4,9	74,5	74,7	72,6	1,5	1,8	3,8

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen %3,4k, Bilbon %5ek eta Donostian %19,7k jaso dute etxean euskara soilik.

Euskara gaztelaniarekin batera jaso du gasteiztarren %2,9k, bilbotarren %3,5ek eta donostiarren %7,6k. Gasteizen kasuan, gehiago dira euskara edo gaztelania ez den hizkuntza bat jaso dutenak (%5,4) euskara soilik jaso dutenak baino (%3,4).

25. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Eskualdeei dagokienez, euskara soilik etxean jaso dutenen ehunekorik handiena Lea-Artibaik du (% 72,3) eta baita euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten ehunekorik handienetakoa ere (% 5,3).

Urolak Kostan hirutik bik euskara soilik jaso du etxean (% 64,3). Era berean, Busturialdeko eta Tolosaldeko biztanleen erdiak baino gehiagok euskara soilik jaso du etxean (% 58,3 eta % 57,2 hurrenez hurren).

Azkenik, bost eskualdetan gehiago dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak euskara soilik jaso dutenak baino, hala nola, Arabako ia eskualde guztiak eta Bizkaiko Enkarterri.


24. taula. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)

		Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
ARABA	Aiaraldea	32.634	4,4	3,8	88,7	3,1
	Añana	5.660	2,5	2,2	91,1	4,3
	Arabako Errioxa	10.934	2,7	3,2	88,6	5,6
	Arabako Lautada	241.368	3,5	3,0	88,3	5,3
	Gorbeialdea	8.220	19,5	5,7	70,6	4,2
	Mendialdea	3.080	2,8	2,9	91,1	3,2
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	22.151	35,8	8,4	52,2	3,6
	Bilbo Handia	827.392	5,3	3,5	87,6	3,6
	Busturialdea	43.593	58,3	7,0	30,6	4,1
	Durangaldea	91.956	30,4	7,0	58,1	4,5
	Enkarterri	30.237	2,2	2,4	91,8	3,5
	Lea-Artibai	25.036	72,3	4,8	17,5	5,3
	Plentzia-Mungia	50.912	27,3	7,8	61,7	3,2
GIPUZKOA	Bidasoa Beherea	71.627	20,6	6,5	69,1	3,9
	Debarrena	51.624	42,2	7,3	46,4	4,2
	Debagoiena	58.442	47,3	6,7	43,2	2,8
	Donostialdea	305.728	24,0	7,1	65,2	3,6
	Goierrri	62.997	42,2	6,9	46,9	3,9
	Tolosaldea	44.217	57,2	6,9	33,1	2,9
	Urola Kosta	68.328	64,3	5,4	27,3	3,0

3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa % 20tik gorakoa da nagusien eta gazteen adin-taldeetan, hau da, 70 urte edo gehiagokoen eta 20 urte baino gutxiagokoen artean. Gainerako adin-taldeetan ehunekoa txikiagoa da. Ehunekorik txikiena 25-40 urte bitartekoek dute, ez baita % 16ra iristen.

26. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenen artean, ehunekorik altuena umeez eta gazteek dute, eta % 10 baino gehiago dira 20 urtetik beherakoen artean. Adinean gora egin ahala, behera egiten du euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak, eta 50 urtetik gorakoen artean % 3 baino txikiagoa da.

Gaztelania izan arren lehen hizkuntza nagusia adin-talde guztietan, zenbat eta gazteago orduan eta txikiagoa da nagusitasun hori. 35 urtetik gorakoan artean lau lagunetik hiruk baino gehiagok gaztelania du lehen hizkuntza (% 75 baino gehiago), baina adin horretatik behera jaisten doa ehunekoa, eta 20 urtetik beherako gazteen artean ehunekoa % 62,3 da batez beste. Era berean, 70 urtetik gorakoan artean ere ehunekoa txikituz doa adinean gora egin ahala, baina ez gazteenen neurri berean.

EAE n euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenen ehunekoa % 4tik gorakoa da 15 eta 45 urte bitartekoan artean. Ehuneko hori are handiagoa da 20-35 urte dituztenen artean, batez beste % 6,5 baita.

ARABA

Arabian lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena gazteenek dute (% 7,7) eta txikiena helduek (% 3 eta % 4 bitartean).

Gero eta gehiago dira euskara eta gaztelania batera jasotzen dituzten arabarrak. Horrela, 30 urte baino gutxiagokoan artean ehuneko handiagoak jaso ditu etxean euskara eta gaztelania, euskara soilik baino. 5-14 urte bitartekoek, berriz, % 10ek baino gehiagok euskara eta gaztelania jaso ditu etxean.

Bestalde, Araban 45 urte baino gutxiagokoei dagokienez, aipagarria da atzerriko hizkuntzek duten ehunekoa, bereziki 25-29 urte dituztenen artean (% 10).

Azkenik, gaztelania nagusi izan arren adin-talde guztietan, nabarmen egiten du behera, adinean behera egin ahala.

25. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥85	6.936	5,2	1,0	92,2	1,6
80-84	8.307	4,6	1,1	92,4	1,8
75-79	11.768	4,0	1,2	93,0	1,8
70-74	12.135	3,6	1,0	93,2	2,2
65-69	15.656	3,4	1,0	93,7	1,9
60-64	18.889	3,4	0,9	93,5	2,1
55-59	20.101	3,3	1,1	92,6	2,9
50-54	23.045	4,2	1,3	91,1	3,4
45-49	25.180	4,1	1,5	90,3	4,1
40-44	26.433	3,3	1,6	89,2	5,9
35-39	28.189	3,0	2,1	87,9	7,0
30-34	27.462	2,9	2,9	85,6	8,6
25-29	21.407	3,3	3,9	82,8	10,0
20-24	15.521	3,7	5,3	82,5	8,4
15-19	12.959	5,2	8,4	80,2	6,1
10-14	13.284	6,1	10,6	78,7	4,6
5-9	14.624	7,7	11,9	76,4	4,0
Guztira	301.896	3,9	3,1	87,9	5,0

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

BIZKAIA

Bizkaian, aldiz, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena zaharrenek eta gazteenek dute. 85 urte edo gehiagokoen % 19,4k dute euskara soilik lehen hizkuntza eta % 15,4k dute 5-9 urte bitartekoen artean. Ehunekorik txikiena helduek dute, batez ere 25-44 urte bitartekoek, % 11 baino gutxiago.

Araban bezala, gero eta gehiago dira euskara eta gaztelania batera jasotzen dituztenak. Horrela, % 10 baino gehiago dira 20 urte baino gutxiago dituztenen artean.

Euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzek ere pisu handia dute adin-talde batzuetan, batez ere 20-30 urte bitartekoen artean (% 6,4 batez beste).

26. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥85	27.659	19,4	1,9	76,7	1,9
80-84	37.502	17,7	1,9	78,1	2,3
75-79	51.103	16,4	1,8	79,0	2,8
70-74	48.458	14,4	1,7	80,8	3,1
65-69	58.746	13,2	1,9	82,0	2,9
60-64	69.418	12,9	2,0	82,4	2,7
55-59	74.051	12,5	2,1	82,5	2,8
50-54	87.532	12,1	2,2	83,0	2,7
45-49	92.252	11,5	2,5	82,9	3,0
40-44	92.565	10,8	3,0	82,5	3,8
35-39	96.085	10,3	3,5	81,9	4,4
30-34	91.259	10,4	4,5	79,5	5,6
25-29	70.526	10,6	5,7	76,9	6,8
20-24	53.661	11,5	7,3	75,3	6,0
15-19	44.702	13,2	10,0	72,8	4,1
10-14	45.113	14,9	13,3	68,9	3,0
5-9	50.645	15,4	12,8	69,3	2,6
Guztira	1.091.277	12,6	4,2	79,4	3,7

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

GIPUZKOA

Gipuzkoari dagokionez, zaharrenek dute lehen hizkuntza euskara soilik dutenen artean ehunekorik handiena (%45,7). Bizkaian bezala, lehen hizkuntza euskara dutenen artean ehunekorik txikiena 25 eta 44 urte bitartekoek dute; ez dira %32ra heltzen.

Beste bi lurraldeetan baino ehuneko handiagoak jaso ditu euskara eta gaztelania etxean, batez ere gazteenek, %15 baino gehiago baitira 15 urte baino gutxiago dituztenen artean.

Era berean, Araban eta Bizkaian baino ehuneko txikiagoak jaso du gaztelania etxean, adin-talde guztietan. Horrela, 25 urte baino gutxiago dituztenen artean erdiak baino gutxiago jaso du gaztelania etxean (%46,8).




Gipuzkoan euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuen ehunekoa Bizkaiak duenaren antzekoa da. Ehunekorik handiena 25-29 urte bitartekoek dute (% 6,5).

27. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥ 85	16.597	45,7	3,0	49,3	2,0
80-84	21.152	44,7	3,2	50,1	2,1
75-79	28.951	41,3	3,1	53,4	2,2
70-74	28.844	38,2	3,2	56,1	2,4
65-69	36.389	36,4	3,5	57,8	2,3
60-64	43.767	36,1	4,0	57,4	2,5
55-59	45.087	34,4	3,8	59,1	2,8
50-54	51.202	34,2	4,6	58,5	2,8
45-49	54.575	33,4	5,1	58,4	3,0
40-44	55.883	31,7	5,4	59,0	3,8
35-39	59.047	31,0	6,5	58,1	4,3
30-34	54.727	30,9	7,7	55,8	5,7
25-29	41.192	31,4	8,7	53,4	6,5
20-24	32.085	34,4	11,2	48,9	5,5
15-19	28.755	39,1	13,8	43,5	3,6
10-14	30.722	40,8	15,7	40,7	2,9
5-9	33.988	37,0	15,6	45,2	2,3
Guztira	662.963	35,2	6,8	54,4	3,5

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

EAEko lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, duela 20 urte lehen hizkuntza euskara soilik zutenen ehunekorik altuena 70 urtetik gorakoek zuten (% 31,4 batez beste), eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, 20 urtetik beherakoek zutelarik ehuneko txikiena (% 17 batez beste). Gaur egun, ordea, 20 urtetik beherakoek artean % 20 baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara dutenak.

27. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)


Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania zutenei dagokienez, oraingo ume eta gazteek baino askoz ehuneko txikiagoa zuten, erdia inguru. Horrela, gaur egun 5-9 urte bitartekoen % 13,6k lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ditu, eta duela 20 urte % 7,4k.

Duela 20 urte lehen hizkuntza gaztelania zutenen ehunekoa gero eta handiagoa zen adinean behera egin ahala. %75 baino gehiago ziren lehen hizkuntza gaztelania zutenak 50 urtetik beherakoen artean, gazteenen adin-taldea izan ezik. Gaur egun, 20 urtetik beherakoek dute gaztelania jaso dutenen artean ehunekorik txikiena (% 62,3 batez beste).

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat zutenen ehunekorik txikiena umeek eta gazteek zuten. Gaur eguneko ehunekoarekin alderatuz, 6 puntuko aldea dago adin-talde batzuetan. 1991n 25-29 urte bitartekoen artean % 1,2k zuten euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat; 2011n, aldiz, % 7,2 dira.

3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera


Euskaldunen hizkuntza-ibilbidea aztertuko da jarraian. Horretarako, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko dira.

Euskaldunak hiru multzotan banatu dira euren lehen hizkuntzaren arabera: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.

2011ko Zentsuaren arabera, EAEn bost urte edo gehiagoko euskaldunen % 46,9k euskara hutsik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldun zaharrak 351.630 dira EAEn.

Euskaldunen % 10,9k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da. 81.712 euskaldun jatorrizko elebidunak dira.

Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 42,2 dira, hau da, euskaldun berriak dira. 315.840 pertsona euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian. Euskaldun gehienek lehen hizkuntza euskara bada ere, euskaldunen kopuru handi batek bigarren hizkuntza du euskara.

28. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Izan ere, gaur egun ez bezala, 1991n euskaldun zaharren ehunekoa euskaldun berriena baino askoz handiagoa zen. Duela 20 urte %71,4 ziren euskaldun zaharrak eta %20,4 euskaldun berriak. Gaur egun, ordea, ia parekaturik daude (%46,9 versus %42,2).

Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, batetik bestera dauden aldeak esanguratsuak dira. Araban eta Bizkaian euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (%74,8 eta %51,6, hurrenez hurren). Gipuzkoan, aldiz, euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira (%62,5).


Duela 20 urte ere Araban euskaldun gehienak euskaldun berriak ziren (%61,2); baina Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan, euskaldun berrien ehunekoa oraingoaren erdia zen (%25,8 Bizkaian eta %13,6 Gipuzkoan).

29. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

30. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

28. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)

		Euskaldunak guztira	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak
ARABA	Aiaraldea	9.062	12,5	10,7	76,8
	Añana	916	11,9	9,8	78,3
	Arabako Errioxa	2.277	11,2	11,8	77,0
	Arabako Lautada	52.926	13,3	10,6	76,2
	Gorbeialdea	3.399	43,3	11,4	45,3
	Mendialdea	616	12,7	10,7	76,6
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	11.983	61,4	12,7	25,9
	Bilbo Handia	191.457	18,6	11,6	69,8
	Busturialdea	31.405	77,3	8,3	14,4
	Durangaldea	44.562	57,8	11,8	30,4
	Enkarterri	6.513	7,7	8,7	83,5
	Lea-Artibai	20.331	86,7	5,3	8,1
	Plentzia-Mungia	24.836	50,7	13,2	36,0
GIPUZKOA	Bidasoa Beherea	28.898	45,8	13,1	41,0
	Debarrena	30.001	67,6	10,5	21,9
	Debagoiena	36.711	71,3	9,4	19,4
	Donostialdea	132.684	49,9	13,2	36,9
	Goierri	37.418	67,7	10,4	21,9
	Tolosaldea	31.239	76,9	8,6	14,5
	Urola Kosta	51.948	82,2	6,3	11,5

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.


Eskualdeei dagokienez, Arabako sei eskualdeetan eta Bizkaiko Bilbo Handia eta Enkarterri eskualdeetan euskaldun berrien ehuneko euskaldun zaharrena baino handiagoa da. Gipuzkoan, aldiz, ehuneko handiagoa dute euskaldun zaharrek eskualde guztietan.

Euskaldun zaharren ehunekorik handiena Lea-Artibaik (% 86,7) eta Urola Kostak (% 82,2) dute. Era berean, euskaldun zaharren ehuneko handia dute Busturialdeak (% 77,3), Debagoienak (% 71,3), Goierrik (% 67,7) eta Debarrenak (% 67,6).

Euskaldun berrien ehunekorik handiena Enkarterrik (%83,5), Añanak (%78,3), Arabako Errioxak (%77), Aiaraldeak (%76,8), Mendialdeak (%76,6) eta Arabako Lautadak (%76,2) dute.

Jatorrizko elebidunen ehunekorik handiena Plentzia-Mungiak (%13,2), Donostialdeak (%13,2) eta Bidasoa Behereak dute (%13,1).

31. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Euskaldun berrien ia erdia (%49,3) EAEko sei udalerrri handienetan bizi dira (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Getxo, Irun eta Barakaldo). Lau euskaldunetatik hiru baino gehiago euskaldun berriak dira Barakaldon eta Gasteizen, eta erdia baino gehiago Bilbon, Getxon eta Irunen. Donostian euskaldunen %41,9 dira euskaldun berriak.

3.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertzerakoan, azpimarratzekoa da desberdintasunak oso handiak direla gazteenen eta nagusien artean.

Horrela, 35 urtetik beherako gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza, hau da, euskaldun berria da (%56,6). Era berean, 35-49 urte bitarteko euskaldunen artean ere, hirutik bat baino gehiago euskaldun berriak dira (%38,9).

Bestalde, 50 urte baino gehiago dituzten euskaldunen artean, euskaldun berrien ehunekoak gutxituz doa nabarmen adinean gora egin ahala. 65 urte edo gehiagoko euskaldunen %6,9 dira euskaldun berriak.

Euskaldun zaharren ehunekorik handiena 65 edo gehiagokoek dute (%87,6). Adinean behera egin ahala jaitsiz doa ehunekoak, eta euskaldunen %26,6 dira euskaldun zaharrak 20 urte baino gutxiago dituzten artean.


Jatorrizko elebidun gehienak gazteak dira. Adinak behera egin ahala, haziz doa jatorrizko elebidunen ehunekoak. Hazkunde hori handia da 35 urtetik beherako artean, euskaldunen %10 baino gehiago baitira. Ehunekorik handiena 20 urtetik beherakoek dute (%15,4).

Adinaren araberrako bilakaerari dagokionez, azken hogeitau urteotan, euskaldun zaharren ehunekoak behera egin du adin-talde guztietan. 1991n euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan, baita gazteenen artean ere, nahiz eta alde txikia zuten euskaldun berriekiko.

Jatorrizko elebidunak, aldiz, gehiago dira gaur egun 1991n baino, adin-talde guztietan. Hala ere, 65 urtetik gorako artean, 1991ko eta gaur egungo ehuneko artean aldea txikia da, hau da, puntu batekoa.

Euskaldun berriek dagokienez, are handiagoa da aldea, gehiago baitira gaur egun 1991n baino adin-talde guztietan; batez ere, 50 urtetik beherako artean.

32. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

4. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN


4.1. Euskararen erabilera etxean Euskal Autonomia Erkidegoan

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.056.136 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, % 13,4k euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti (275.386 pertsona), eta % 7,4k euskara eta gaztelania (151.972 pertsona).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenak % 77,1 dira (1.585.565 pertsona) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 2,1 (43.213 pertsona).

EAEko biztanleriaren % 20,8k euskara erabiltzen du etxean: % 13,4k euskara erabiltzen du beti edo ia beti, eta % 7,4k euskara gaztelaniarekin batera.

33. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Azken 20 urteotan, euskararen erabilerak etxean ez du aldaketa handirik izan. 1991ean euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenak % 13,8 ziren, 2001ean % 13,6 eta 2011n % 13,4 dira.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak ere jaitsiera txiki bat izan du 1991 eta 2011 bitartean. 1991n % 8 ziren etxean hizkuntza biak erabiltzen zituztenak, 2001ean % 8,3 eta 2011n % 7,4.

Hortaz, euskara beti edo ia beti eta euskara eta erdara erabiltzen dutenen ehunekoak puntu bateko jaitsiera izan du (% 21,8 versus % 20,8)

Gaztelaniaren erabilerak ere jaitsiera txiki bat izan du: 1991ean % 77,6 ziren, 2001ean % 77,5 eta 2011n % 77,1.

Azpimarratzekoa da etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen hazkundera. 1991n eta 2001ean % 1 baino gutxiago ziren (% 0,5 eta % 0,7 hurrenez hurren) eta 2011n % 2,1 dira.

29. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
1991	13,8	8,0	77,6	0,5
2001	13,6	8,3	77,5	0,7
2011	13,4	7,4	77,1	2,1

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

4.2. Euskararen erabilera etxean lurraldearen eta hiriburuaren arabera


Hizkuntzaren erabilera etxean oso bestelakoa da EAEko lurralde batean eta bestean. Araban % 2,7k erabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti, eta % 3,8k euskara eta gaztelania. Bizkaian, aldiz, % 8,8k erabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti eta % 6k euskara eta gaztelania. Azkenik, Gipuzkoa da alde handiz

euskararen erabilerarik handiena duen lurraldea. Izan ere, gipuzkoarren %25,9k euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti eta %11,4k euskara eta gaztelania.

Hiru lurraldeetan, etxean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da: Araban hamarretik bederatzik baino gehiagok (%90,6), Bizkaian hamarretik zortzik baino gehiagok (%83,3) eta Gipuzkoan hamarretik seik (%60,7).

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilera %2,9 da Araban, %2 Bizkaian eta %2 Gipuzkoan.

34. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoak Araban 1,4 puntu egin du gora azken 20 urteotan; Bizkaian ez du aldaketarik izan, eta Gipuzkoan, aldiz 1,4 puntu egin du behera.

1991 eta 2011 bitartean, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen bilakaera ere oso antzekoa izan da. Araban 1,1 puntu egin du gora, Bizkaian ia bere horretan mantendu da eta Gipuzkoan 2,2 puntu egin du behera.

Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du Araban (5 puntu) eta Bizkaian (1,3 puntu). Gipuzkoan, aldiz, gora egin du (2,1 puntu).

Azken 20 urteotan, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan (Araban 2,5 puntu, Bizkaian eta Gipuzkoan 1,5 puntu). Hazkundera bereziki handia izan da azken hamarkadan.

30. taula. Etxeke hizkuntzaren erabileraren bilakaera lurraldearen arabera. EAE 1991-2011 (%)

	Euskara			Euskara eta gaztelania			Gaztelania			Beste bat		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011
Araba	1,3	1,8	2,7	2,7	3,4	3,8	95,6	93,8	90,6	0,4	1,0	2,9
Bizkaia	8,9	8,6	8,8	6,0	6,2	6,0	84,6	84,6	83,3	0,5	0,7	2,0
Gipuzkoa	27,3	27,0	25,9	13,6	13,8	11,4	58,6	58,5	60,7	0,5	0,6	2,0
EAE	13,8	13,6	13,4	8,0	8,3	7,4	77,6	77,5	77,1	0,5	0,7	2,1


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Hiriburuei dagokienez, etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dute gasteiztarren %2,3k, bilbotarren %2,9k eta donostiarren %11,7k. Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %3,4 dira Gasteizen, %3,8 Bilbon eta %9,6 Donostian.

EAEko hiru hiriburuetakoko biztanleek etxean gehien erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da: %91,2k Gasteizen, %91k Bilbon eta %76,5ek Donostian.

Etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 3,2 dira Gasteizen (euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak baino gehiago); Bilbon % 2,3 dira eta Donostian % 2,1.

35. irudia. Etzeko hizkuntzaren erabilera hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak, 2011

1991 eta 2011 bitartean etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du EAEko hiru hiriburuetan (Gasteizen 1,3 puntu, Bilbon 1,4 puntu eta Donostian 3,1 puntu).

Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen bilakaera puntu batekoa baino txikiagoa izan da Gasteizen eta Bilbon. Donostian bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen ehunekoak 2,6 puntu egin du behera.

Etxean nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak gero eta gutxiago dira hiru hiriburuetan. Azken 20 urteotako beherakada 4,8 puntukoa izan da Gasteizen, 3 puntukoa Bilbon eta 2,1 puntukoa Donostian.

Etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak, aldiz, gero eta gehiago dira: Gasteizen 2,7 puntu egin dute gora, Bilbon 1,8 puntu eta Donostian 1,5 puntu.

31. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera hiriburuaren arabera. EAE 1991-2011 (%)

	Euskara			Euskara eta gaztelania			Gaztelania			Beste bat		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011
Gasteiz	1,0	1,5	2,3	2,5	3,1	3,4	96	94,3	91,2	0,5	1,1	3,2
Bilbo	1,5	1,7	2,9	4,0	3,7	3,8	94	93,8	91	0,5	0,8	2,3
Donostia	8,6	9,4	11,7	12,2	11,7	9,6	78,6	78,2	76,5	0,6	0,6	2,1

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

4.3. Euskararen erabilera etxean eskualdearen arabera

Gorbeialdea eskualdean izan ezik, Arabako eskualde guztietan, eta Bizkaiko Bilbo Handian eta Enkarterrin euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen portzentajea %3koa edo txikiagoa da, eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenena %5ekoa edo txikiagoa. Eskualde horietan erabat nagusi dira (%90etik gora) etxean gaztelania erabiltzen dutenak. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilerari dagokionez, Arabako Errioxak (%3,6), Arabako Lautadak (%3,1) eta Añanak (%3) EAEko eskualdeen arteko ehunekorik handienak dituzte.

Bigarren multzo batean Bidasoa Beherea, Gorbeialdea, Donostialdea, Plentzia-Mungia eta Durangaldea daude. Bost eskualde horietan etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoa %10 eta %20 bitartean dago; eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenena %8 eta %13 bitartean. Aurreko multzoan bezalaxe, eskualde horietako biztanle gehienek gaztelania erabiltzen dute etxean (bi heren eta hiru laurden artean). Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2 eta %2,5 bitartean daude bost eskualdeotan.


Hirugarren multzo bat honako eskualde hauek osatzen dute: Arratia-Nerbioi, Debabarrena, Goierri eta Debagoiena. Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoa aurrekoetan baino nabarmen handiagoa da (laurdena eta herena bitartean). Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, aurreko taldearen antzekoak dira (%11 eta %15 bitartean). Eskualde horietan bizi diren biztanleen erdiak gutxi gorabehera gaztelania erabiltzen du etxean. Azkenik,

euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 1,5 eta % 2,5 bitartean daude.

Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen artean, honako eskualde hauek dute erabilerarik handiena: Busturialdea (% 44,8), Tolosaldea (% 46,9), Urola Kosta (% 54,9) eta Lea-Artibai (% 65,2). Aurreko taldean bezalaxe, euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa % 10 eta % 15 bitartekoa da.

Azken eskualdeotan gehiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak gaztelania erabiltzen dutenak baino. Izan ere, azken hauek dira % 38,1 Busturialdean, % 37,8 Tolosaldean, % 31,9 Urola Kostan eta % 22,4 Lea-Artibain. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa % 2,5 da Lea-Artibain eta % 2,3 Busturialdean. Gainerako bietan % 2 baino txikiagoa da.

36. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011.

Azken 20 urteotan, etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du Arabako eskualdeetan (Gorbeialdean izan ezik), Bilbo Handian eta Enkarterrin. Igoera 1,4 eta 2,4 puntu bitartekoa izan da. Bidasoa Beherean eta Donostialdean ia ez da aldaketarik izan, eta gainerako eskualde guztietan behera egin du etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen portzentajeak.

32. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)

		Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania		Beste bat	
		1991	2011	1991	2011	1991	2011	1991	2011
ARABA	Aiaraldea	1,1	2,6	4,3	5,2	94,4	90,7	0,2	1,5
	Añana	0,2	1,6	0,8	2,3	98,9	93,1	0,1	3,0
	Arabako Errioxa	0,3	1,8	0,8	2,9	98,7	91,8	0,1	3,6
	Arabako Lautada	1,0	2,4	2,5	3,5	96,1	91	0,5	3,1
	Gorbeialdea	19,5	14,4	7,1	8,9	73	74,2	0,4	2,5
	Mendialdea	0,5	2,9	0,7	3,3	98,8	92,4	0,0	1,4
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	36,1	27,8	13,1	11,8	50,6	58,6	0,3	1,9
	Bilbo Handia	2,0	3,1	4,1	4,2	93,4	90,8	0,5	1,9
	Busturialdea	53,5	44,8	20,1	14,8	26,2	38,1	0,2	2,3
	Durangaldea	25,0	19,6	12,8	12,3	61,2	65,7	1,0	2,4
	Enkarterri	0,1	1,8	1,0	3,2	98,8	93	0,1	2,0
	Lea-Artibai	74,9	65,2	8,8	9,9	15,5	22,4	0,8	2,5
	Plentzia-Mungia	27,8	17,9	17,2	12,6	54,7	67,7	0,4	1,9
GIPUZKOA	Bidasoa Beherea	12,5	13,2	12,0	9,5	75,1	75,2	0,3	2,2
	Debarrena	31,7	29,8	17,7	13,7	50,0	54,5	0,7	2,1
	Debagoiena	38,4	35,1	17,2	14,8	44,0	48,5	0,4	1,6
	Donostialdea	14,8	15,4	12,2	10,3	72,4	72,4	0,7	1,9
	Goierri	35,3	33,4	14,7	12,5	49,5	51,7	0,5	2,4
	Tolosaldea	50,5	46,9	15,4	13,4	33,9	37,8	0,2	1,9
	Urola Kosta	64,4	54,9	11,8	11,5	23,5	31,9	0,3	1,8

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

4.4. Euskararen erabilera etxean gune soziolinguistikoaren arabera

Lehen gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 baino gutxiago dira) etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak % 1,3 dira eta euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak % 2,4. Lehenengo gune soziolinguistikoan % 94,4k gaztelania erabiltzen du etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 1,8 dira.

Bigarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak %5,4 dira, eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %5,8. Bigarren guneko biztanle gehienek (% 86,6) gaztelania erabiltzen dute etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2,2 dira.

Hirugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean) askoz handiagoa da bai etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoa (% 34,7), baita euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenena ere (% 14). Hirugarren guneko biztanleen erdia (%49,3) gaztelaniaz aritzen da etxean, eta %2k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen du.

Azkenik, laugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %80 edo gehiago) hiru biztanletik bik baino gehiagok euskara beti edo ia beti erabiltzen du etxean (% 68,2), eta hamarretik batek euskara eta gaztelania (% 9,4). Gaztelania erabiltzen dutenak bostetik bat dira (% 20,6), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 1,7.


Lehenengo gune soziolinguistikoan etxeko erabilerak ia ez du aldaketarik izan azken 20 urteotan. Etxean erabiltzen den hizkuntza edozein izanda ere, ehunekoek puntu bat inguruko gorabehera izan dute.

Bigarren gune soziolinguistikoan, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du azken 20 urteotan. Euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenak % 14,3 ziren 1991n, eta %5,4 dira 2011n. Euskara eta gaztelania erabiltzen zutenak % 12,9 ziren 1991n, eta %5,8 dira 2011n.


Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du. 1991n etxean gaztelania erabiltzen zutenak %72,2 ziren eta 2011n %86,6 dira. Etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak ere gora egin dute; 1991n %0,5 ziren, eta 2011n %2,2 dira.

37. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)


1. gune soziolinguistikoa (% <20)





2. gune soziolinguistikoa (% 20-50)



3. gune soziolinguistikoa (% 50-80)



4. gune soziolinguistikoa (% ≥80)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

Euskararen erabilera izan duen beherakada ulertzeko, kontuan hartu behar da lehenengo gune soziolinguistikoan zeuden hainbat udalerrri (Gasteiz, Bilbo, Getxo, Santurtzi edo Portugalete esate baterako) bigarrenera pasatu direla azken hamarkadan.

Hirugarren gune soziolinguistikoan ere behera egin du etxean beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenen portzentajeak (1991n %43,4 eta 2011n %34,7); baita euskara zein gaztelania erabiltzen dutenenak ere (1991n %17,1 eta 2011n %14). Gaztelaniaren erabilera eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza batena, aldiz, hazi egin da. Izan ere, etxean gaztelania erabiltzen zutenak %39,1 ziren

1991n eta %49,3 dira 2011n. Eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak 1991n %0,4 ziren eta 2011n %2 dira).

Laugarren gune soziolinguistikoan, etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du (1991n %78,4 eta 2011n %68,2), baita etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen portzentajeak ere (1991n %10,2 eta 2011n %9,4). Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du (1991n %11,1 eta 2011n %20,6) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenena ere bai (1991n %0,4 eta 2011n %1,7).

33. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE 1991-2011 (%)

	1. gunea			2. gunea			3. gunea			4. gunea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1991	2001	2011
Euskara	1,2	1,4	1,3	14,3	8,9	5,4	43,4	35,9	34,7	78,4	74,1	68,2
Euskara eta gaztelania	3,3	3,1	2,4	12,9	10,9	5,8	17,1	17,7	14,0	10,2	10,6	9,4
Gaztelania	94,9	94,8	94,4	72,2	79,5	86,6	39,1	45,9	49,3	11,1	14,6	20,6
Beste bat	0,6	0,8	1,8	0,5	0,7	2,2	0,4	0,6	2,0	0,4	0,7	1,7

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

4.5. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera


2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 20 urtetik beherako gazteak dira (%16,7 batez beste). Ondoren, 70 urte edo gehiagokoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak etxean (%14,6 batez beste). Euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen artean, ehunekorik txikiena 40-70 urte bitartekoek dute, ez dira %13ra iristen.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekorik handiena ere 20 urtetik beherako gazteek dute (batez beste %11,5). Adinak gora egin ahala behera egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoak.

Gaztelaniaren erabilera etxean nagusi da adin-talde guztietan. Hala ere, 20 urtetik beherako gazteen artean, gaztelaniaren erabilera etxean behera egiten ari da. Izan ere, 20 urtetik gorakoen artean batez beste %78k erabiltzen du gaztelania etxean, eta 20 urtetik beherakoen artean batez beste %70ek.

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen portzentajea handiagoa da 20-40 urte bitartekoaren artean gainerako adin-taldeetan baino (batez beste %3,7).

38. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

EAEko adinaren araberako joera ez dator guztiz bat hiru lurraldeetan.

ARABA

Arabaren zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara etxean. Euskara gehien 5-9 urte bitartekoek erabiltzen dute (% 13,3). Horietatik % 6,3k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara etxean eta % 7k euskara eta gaztelania. Euskara gutxien 60 urtetik gorakoek erabiltzen dute, ez baita % 3ra iristen euskara soilik edo gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenen portzentajea.

Horrezaz gain, Araban 20-40 urte bitartekoen % 5ek batez beste euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen du.

34. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Araba, 2011 (%)

Adin-taldeak	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥ 85	1,3	1,7	96,2	0,8
80-84	1,2	1,2	96,6	1,0
75-79	1,3	1,3	96,3	1,0
70-74	1,2	1,1	96,3	1,4
65-69	1,3	1,0	96,6	1,1
60-64	1,4	1,5	95,9	1,2
55-59	1,7	2,2	94,6	1,5
50-54	2,7	3,1	92,3	1,9
45-49	3,4	3,8	90,4	2,3
40-44	2,8	4,1	89,5	3,6
35-39	2,9	4,9	87,9	4,4
30-34	3,2	4,6	87,0	5,2
25-29	2,7	4,5	87,0	5,8
20-24	2,7	5,2	87,1	5,1
15-19	3,5	6,8	86,1	3,7
10-14	4,5	6,7	86,3	2,5
5-9	6,3	7,0	84,8	1,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

BIZKAIA

Bizkaian ere gazteenak dira euskara etxean gehien erabiltzen dutenak. Horrela, 5-9 urte bitartekoen %22,4k euskara erabiltzen du etxean. Horietatik %12k beti edo ia beti erabiltzen du euskara etxean eta %10,4k euskara eta gaztelania.

Hala ere, euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak bakarrik kontuan hartzen baldin badira, nagusien eta gazteen ehunekoa oso antzekoa da (%11,6 versus %12). Etxeko euskararen erabileran ehunekorik txikiena 40-64 urte bitarteko helduek dute. Adin-talde horietako %13,3k batez beste erabiltzen du etxean euskara beti edo gaztelaniarekin batera.

35. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)

Adin-taldeak	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥85	11,6	3,4	84,1	0,9
80-84	11,0	3,6	84,7	0,7
75-79	9,7	3,6	85,7	1,0
70-74	8,9	3,1	87,0	1,0
65-69	8,4	3,6	87,1	1,0
60-64	8,2	3,8	87,1	0,9
55-59	8,0	4,3	86,6	1,0
50-54	7,8	5,4	85,5	1,3
45-49	8,0	6,1	84,3	1,6
40-44	7,7	6,9	83,1	2,2
35-39	8,3	7,0	81,8	2,9
30-34	8,6	6,6	81,2	3,6
25-29	8,3	6,2	81,3	4,2
20-24	8,0	6,9	81,5	3,6
15-19	9,0	9,0	79,9	2,2
10-14	11,1	10,3	77,4	1,3
5-9	12,0	10,4	76,4	1,2

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

GIPUZKOA

Gipuzkoan gazteenak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. Hortaz, zenbat eta gazteago, orduan eta erabilera handiagoa. Horrela, 5-9 urte bitarteko gipuzkoarren %48,7k euskara erabiltzen du etxean. Horietatik, %33,3k beti edo ia beti euskara erabiltzen du etxean eta %15,4k euskara eta gaztelania.



Euskara gutxien etxean 40-70 urte bitartekoek erabiltzen dute (beti edo ia beti edo gaztelaniarekin batera), %33,8 batez beste. 70 urtetik gorakoen artean berriro gora egiten du etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak (%36,1 batez beste).

36. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)

Adin-taldeak	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
≥85	29,6	9,5	59,9	1,0
80-84	29,3	8,7	61,1	0,9
75-79	27,8	7,5	63,8	0,8
70-74	26,1	7,8	65,3	0,9
65-69	24,6	7,8	66,7	0,9
60-64	23,6	8,8	66,5	1,1
55-59	21,9	9,7	67,2	1,3
50-54	22,8	11,3	64,4	1,5
45-49	23,5	12,0	62,8	1,7
40-44	24,2	11,7	61,7	2,4
35-39	26,3	11,8	59,3	2,7
30-34	26,9	11,8	57,8	3,6
25-29	25,0	12,2	58,6	4,2
20-24	26,0	14,0	56,7	3,3
15-19	28,5	16,7	52,7	2,0
10-14	30,7	16,1	51,9	1,3
5-9	33,3	15,4	50,0	1,3

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

39. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera etxean adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



- Euskara
- Euskara eta gaztelania
- Gaztelania
- Beste bat

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, EAEn duela 20 urte etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenen ehunekorik altuena 70 urtetik gorakoek zuten (% 20,6 batez beste), eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala (% 12,9 zen batez beste 20 urtetik beherakoen artean). Gaur egun, ordea, 20 urtetik beherako gazteak dira euskararen erabilerarik altuena etxean (% 16,7 batez beste).

1991n 15 urtetik beherakoak ziren euskara eta gaztelania gehien erabiltzen zituztenak etxean (% 11,2 batez beste) eta 45-74 urte bitartekoak gutxien erabiltzen zutenak (% 7 baino gutxiago). Gaur egun ere gazteenak dira (20 urtetik beherakoak) bi hizkuntzak gehien erabiltzen dituztenak (% 11,5 batez beste) eta ehunekoak behera egiten du adinean gora egin ahala, oro har.

Horrezaz gain, 1991n gaztelania gutxien erabiltzen zutenak, 70 urtetik gorakoak ziren eta gehien erabiltzen zutenak, gainerako adin-taldeak, 15 urtetik beherakoak izan ezik.

Beste hizkuntzen erabilerari dagokionez, 1991n oso txikia zen, ez baitzen % 1era iristen adin-talde batean ere.


4.6. Euskararen erabilera etxean euskaldunen artean

Atal honetan euskaldunen euskararen erabilera etxean aztertuko da. Euskara erabiltzeko gaitasuna dutenak bakarrik izango dira kontuan. Hortaz, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak ez dira sartuko.

Euskaldunen % 36,3k euskara erabiltzen du etxean, % 17,7k euskara eta erdara eta gainerako % 46k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lurraldeei dagokienez, etxean euskara edo biak erabiltzen ditu Arabako euskaldunen laurdenak (% 25,4), Bizkaikoen ia erdiak (% 45,2) eta Gipuzkoakoen bi herenak (% 67,9).

Duela 20 urte EAEn etxean euskara edo biak erabiltzen zituen euskaldunen ehunekoa nabarmen handiagoa zen (% 76,6). Horietatik, % 52,5ek euskara beti edo ia beti eta % 24,1ek euskara eta erdara. Hortaz, 22,5 puntuko jaitsiera izan da euskara beti edo ia beti eta euskara eta erdara erabiltzen duten euskaldunen artean (% 76,6 versus % 54). Horrek ez du esan nahi erabilera orokorra murriztu denik, baizik eta euskaldunen ehunekoa asko hazi dela, eta erabilera ez dela neurri berean hazi.

40. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2011 (%)

■ Euskara
■ Euskara eta gaztelania
■ Gaztelania

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

37. taula. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)

	Euskaldunak	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania
Araba	69.196	11,6	13,8	74,6
Bizkaia	331.087	28,3	16,9	54,8
Gipuzkoa	348.899	48,7	19,2	32,1
EAE	749.182	36,3	17,7	46,0

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011.

38. taula. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2011

Euskaldunak	EAE			EAE (%)		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011
Euskara	279.042	269.319	271.826	52,5	42,1	36,3
Euskara eta gaztelania	128.325	136.379	132.563	24,1	21,3	17,7
Gaztelania	124.599	233.598	344.793	23,4	36,5	46,0

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.


Euskaldunen irabazirik handienak euskaldun berrietatik datoz. Gero eta euskaldun gehiago dago etxean erdara jaso duena eta euskara etxetik kanpo ikasi duena. Lehen hizkuntza erdara izateak eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunarekin. Horrezaz gain, harreman-sarea erdalduna izateak, kasu honetan etxeko kide guztiak edo batzuk erdaldunak izateak, zaildu egiten du euskaraz egitea etxean.

Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehen hizkuntza euskara izateak duen eragina etxeko erabileran. Horrela, lehen hizkuntza euskara hutsik izan dutenen, hau da, euskaldun zaharren % 66,7k euskara erabiltzen du etxean, % 18,4k euskara eta erdara, eta % 14,9k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera jaso dituztenen artean asko jaisten da erabilera. Jatorrizko elebidunen % 18,5ek euskara erabiltzen du etxean, % 40,7k euskara eta erdara, eta % 40,8k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Euskaldun berrien kasuan, erabilera txikiagoa da. Izan ere, lehen hizkuntza erdara izan duten euskaldunen % 7,1ek euskara erabiltzen du etxean, % 11,0k euskara eta erdara eta % 82,0k ez du euskararik erabiltzen.

41. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)



2011n 1991n baino euskaldun zahar gutxiagok erabiltzen du euskara beti edo ia beti, % 71,3 baitziren 1991n eta % 66,7 dira 2011n. Ia 5 puntuko jaitiera izan du.

Jatorrizko elebidunen erabilerak gora egin du. Gero eta jatorrizko elebidun gehiagok erabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti, ia 10 puntuko igoera izan du ehunekoetan azken 20 urteotan (% 8,7 versus % 18,5).

Era berean, gero eta euskaldun berri gehiagok erabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti. 1991ean euskaldun berrien % 3,9k erabiltzen zuen euskara beti edo ia beti etxean; eta 2011n, ordea, % 7,1ek.

39. taula. Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen duten euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2011

	1991		2001		2011	
	Nº	(%)	Nº	(%)	Nº	(%)
Euskaldun zaharrak	271.034	71,3	256.264	70,0	234.441	66,7
Jatorrizko elebidunak	3.763	8,7	4.276	7,4	15.093	18,5
Euskaldun berriak	4.245	3,9	8.779	4,1	22.292	7,1

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

5. LABURBILDUZ

- Gero eta biztanleria zaharra goa izateak eta atzerriko immigrazioak izan duen hazkundeak eragina izan du azken urteotako hizkuntzaren bilakaeran. EAEn gaur egun gehiago dira 65 urtetik gorakoak (% 19,8) 20 urtetik beherakoak baino (% 17,6). Atzerriko etorkinei dagokienez, berriz, EAeko biztanleen % 6,6 dira gaur egun.
- Bost urte edo gehiagoko biztanleen % 36,4 euskalduna da, % 19,3 euskaldun hartzailea eta % 44,3 erdalduna. Gaur egun, 749.182 euskaldun daude, 1981ean baino 318.000 gehiago. Euskaldunen ehunekoak 14,5 puntuko hazkundera izan du 30 urte hauetan (% 36,4 versus % 21,9).
- Euskaldunen ehunekorik handiena 20 urtetik beherakoen artean dago. 5 eta 19 urte bitarteko umeen eta gazteen % 75 baino gehiago euskalduna da gaur egun; 1981en, ordea, ez zen % 20ra iristen. Hala ere, gazteen pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, euskaldunen hazkundeak ez du horrenbesteko isla biztanleria osoko emaitzetan.
- Era berean, azken hamarkadan atzeritik etorritako immigrante gehienak gazteak dira, hau da, 20-40 urte bitartekoak (% 58), eta horrek eragina izan du adin-talde horietako euskaldunen ehunekoetan.
- Lehen hizkuntzari dagokionez, gero eta ume eta gazte gehiagoren lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dira. % 10 baino gehiago dira jatorrizko elebidunak 20 urtetik beherakoen artean. Era berean, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenak, batez ere gazteak.
- Hamar euskaldunetik ia sei euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean jaso dute euskara (% 58). Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak, hau da, euskaldun berriak % 42 dira.

- Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 30 urtetik beherako gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza (%58).
- Euskaldun berrien ia erdia (%49,3) EAeko sei udalerrri handienetan bizi da (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Getxo, Irun eta Barakaldo). Denak bigarren gune soziolinguistikoan kokatuta daude, Barakaldo izan ezik, lehen gunean kokatua berau.
- Etxeko erabilera ez da ia aldatu azken 20 urteotan. 1991n EAeko biztanleen %21,8k erabiltzen zuen euskara etxean, eta %20,8k 2011n. Puntu bateko beherakada izan du.
- Duela 20 urte nagusienak ziren etxean euskara gehien erabiltzen zutenak. Gaur egun, aldiz, 20 urtetik beherako gazteak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien artean gero eta gehiago dira etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak. Euskaldun zaharren artean, berriz, erabilera jaitsi egin da.

6. TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2011	16
2. taula.	Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2011 (%)	17
3. taula.	Biztanleriaren banaketa udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2011 (%)	18
4. taula.	Hiriburuetakoko biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2011	19
5. taula.	Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren eta ikasketa mailaren arabera. EAE, 2011/12	24
6. taula.	Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2011/12	26
7. taula.	Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)	30
8. taula.	Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011	32
9. taula.	Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 2001-2011 (%)	35
10. taula.	Biztanleriaren banaketaren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1981-2011	38
11. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2011 (%)	40
12. taula.	Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2011 (%)	42
13. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 2011 (%)	43
14. taula.	Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1981-2011 (%)	45
15. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)	46
16. taula.	Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Bizkaia, 1981-2011 (%)	48
17. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)	49
18. taula.	Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa, 1981-2011 (%)	51
19. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gasteiz, 2011 (%)	53
20. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bilbo, 2011 (%)	54
21. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Donostia, 2011 (%)	56
22. taula.	Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2011	61
23. taula.	Lehen hizkuntzaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)	63
24. taula.	Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)	64
25. taula.	Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2011 (%)	67

26. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)	68
27. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)	69
28. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)	74
29. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)	80
30. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera lurraldearen arabera. EAE 1991-2011 (%)	82
31. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera hiriburuaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	84
32. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)	86
33. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	89
34. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Araba, 2011 (%)	91
35. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)	92
36. taula. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)	93
37. taula. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	96
38. taula. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2011	96
39. taula. Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen duten euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2011	98

7. IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)	17
2. irudia. Atzerriko biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2011	20
3. irudia. Atzerriko biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 2001-2011 (%)	20
4. irudia. Atzerriko biztanleriaren piramidea. EAE, 2011 (%)	21
5. irudia. Atzerriko biztanleriaren jatorria lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	22
6. irudia. Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduen arabera. EAE, 2011/12 (%)	23
7. irudia. Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2011/12 (%)	25
8. irudia. Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2011/12 (%)	26
9. irudia. Hizkuntza ereduaren bilakaera ikasketaren mailaren arabera. EAE, 1996/97-2011/12 (%)	28
10. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2011 (%)	29
11. irudia. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)	30
12. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	31
13. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2011 (%)	33
14. irudia. Euskaldunak eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)	34
15. irudia. Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)	37
16. irudia. Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2011 (%)	39
17. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2011 (%)	41
18. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1981-2011 (%)	44
19. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Bizkaia, 1981-2011 (%)	47
20. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa, 1981-2011 (%)	50
21. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)	52
22. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2011 (%)	59
23. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	60
24. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)	62
25. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)	63
26. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2011 (%)	65

27. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	70
28. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)	72
29. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	73
30. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	73
31. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)	75
32. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	77
33. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2011 (%)	79
34. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)	81
35. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)	83
36. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2011 (%)	85
37. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)	88
38. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera. EAE, 2011 (%)	90
39. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera etxean adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)	94
40. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2011 (%)	96
41. irudia. Euskaldunen hizkuntzaren erabilera etxean lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)	97